

# ARGIA

## MAKROFESTIBALAK

# *Musikaren kontsumo eredu basatia*

20-25. orriak

# 2835 | 2023 / 07 / 30 | 4,00 €



**Espainiaren  
governagarritasuna  
Puigdemonen  
eskuetan**

26 | U23 HAUTESKUNDEAK



**Bazterreko  
erotikak  
erdigunera**

33 | FEMINISMOA



**LARRUN #287**  
**Intsektuen gainbehera  
antropozenoan**

# BIZI BARATZEA

## Zure landareak zaintzeko

Jakoba Errekondoren eskutik



**Bizi Baratzea**  
8. argitaraldia  
**23 €**

Baratzezaintzaren jakintza osoa bildu da liburu honetan. Baratzearen entziklopedia.



**Etxeko landareak**  
2. argitaraldia  
**25 €**

Etxeko barruko, balkoiko, eta lorategiko 92 landare hobeto zaintzeko gakoak emango dizkigu liburu honek.



**Ilargia eta landareak 2023**  
**urteko lanen agenda**  
**14 €**

Landareekin egiten ditugun lanak jaso eta ikasteaz gain, agendan idatziko ditugu bakoitzak gure bizitzako hitzorduak, gogoan hartu beharrekoak eta gainerakoak.

Garbiñe Larrearen eskutik



**Sendabelarrekin dakitena**  
2. argitaraldia  
**25 €**

45 sendabelarren propietateak ezagutzeko eta osasunaren mesedetan erabiltzeko informazio zehatza aurkituko duzu liburu honetan.



**Sendabelar Baratzea**  
**14 €**

12 sendabelarrekin sendatzeko baratzea lantzeko proposamena egiten dizugu liburu biribil honekin.

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

## Iritziak

- 15 | DAVID BOU
- 16 | KATIXA DOLHARE
- 17 | MIKEL BASABE
- 17 | EVA PEREZ-PONS
- 18 | KOLDO ALDALUR

## Finkoak

- 42 | BIZI BARATZEA
- 46 | ARGIA KOMUNITATEA
- 47 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGİ-KONTRA:  
E. GOMEZ ETA S. AYESA
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



ANDRÉS IGLESÍAS / MAD COOL

### 20 | MAKROFESTIBALAK

Gorka Peñagarikano ondatuko erreportajeaz auzitan jarri du makrojaialdien erredua. Sorreran izaera iraultzailea zuena egun kapitalismoaren produktu da: funts putreak daude atzean, enpresa pribatuek politikariengandik jasotzen duten mesedezko tratua, turismoa sustatzen dute, hondakin mordoak sortu... eta berdez makillatzen dute haien burua, baina...

## Elkarrizketak eta erreportajeak

8 | NET HURBIL

### Trantsizio ekologikoa eta justizia batzen ditu luxuzko kontsumoaren zergapetzeak

Jenofa Berhokoirigoin

10 | PERTSONAIA | ANGELES CRUZ

### “Ez gatoz inorekin lehiatzera, gure istorioak kontatzera baizik”

Danele Sarriugarte

26 | POLITIKA | U23

### Espainiako Gobernu eta Senaturako hauteskundeak

Erredakzioa

33 | GIZARTEA | FEMINISMOA

### Bazterrak mugitu erotikak iraultzeko

Olaia L. Garaialde

36 | GIZARTEA | ANTZEZLANA

### Txutxumutxuen burrunbak eragindako mina erreparatzeko

Leire Artola

39 | TEKNOLOGIA | ADIMEN ARTIFIZIALA

### Algoritmoek ezkututzen dutena bistaritzen

Irati Irazusta

#### Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

#### Erredakzioa

Aitor Gurrutxaga, Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estixu Eizaguirre, Gorka Peñagarikano, Ilargi Manzanares, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

#### Diseinua

Maitane Gartziandia

#### Argazkilaria

Dani Blanco

#### Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

#### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

#### Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

#### Banaketa

Olatz Korta

#### Azoka

Mikel Olabide

#### Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

#### Web garapena

Asier Iturralde

#### Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

#### Lege gordailua

SS 837-2012

#### ISSN

0213-909X

#### Batzorde parekidea

72562 E

#### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikoko

 komertzial@argia.eus  
komunitatea@argia.eus

#### Telefonoa

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko ideia da ARGIA honako enpresekin batera:



## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA







# Anabasa koloniala

THOMAS MUKOYA / REUTERS  
AXIER LOPEZ

Gutxi behar da berez tentsionatuta bizi den gizarte batean sua pizteko. Eta Kenyan, presidenteak, besteak beste, erregaiaren gaineko zergak %16 igotzen baditu, erantzuna ez da nolana hiko: hainbat egunez hiriak geldiarazita, istiluak, arpilatzeak... Poliziak hainbat lagun hil eta ehunka atxilotu ditu. Oposizioak sustatu protestak ere badira. Presidente izateko borroka, ustelkeriak ezaugarritutako estatu baten baliabideak norbereganatzeko borroka da. Kenyako iragan koloniala –nagusiki britainiarren uztarri odoltsupean– oraindik orain erraetan du estatuak. Politikak komunitate etnikoen arabera egituratzen jarraitzen du, askotan botere kolonialak eragindako bereizketa kultural eta ekonomikoengatik. Erakunde publikoekiko atxikimendua eta sinesgarritasuna oso txikia dira; eta beraz, kalea da askoren baliabidea. Politikari ustelak eta anabasa orokorra errentagarri zaizkio Mendebaldeko metropoliari.



## MOTZEAN

Muturreko beroak Europa, Asia eta Ipar Amerika gogor jo ditu eta Ipar hemisferioan inoiz erregistratu diren temperatura altuenak ekarri ditu. Hala nola Txinako Sanbao herrian 52,2 gradu, Erroman 42 eta AEBetako Arizonan 45,5. Suteen arriskua toki askotan areagotu da.

Itsaso Beltzeko zereal esportazioen ituna eten du Errusiako Gobernuak. Itun horri esker gosez zeuden milioika pertsona salbatu direla gogoratu du NBEk.

Europar Batasunera iritsi nahi duten migratzaileek kanporatzen dituen Frontexen aurrekontua %12.000 baino gehiago igo da azken hamazazpi urteetan. 2022an, 750 milioi eurotik gora jaso ditu diru publikotik.

EHUko irakasle ikertzaileek grebara joko dute irailetik aurrera, Espainiako Estatuko LOSU legearen ezarpenarekin euren lan baldintzak okertzen badira.

Espainiako Estatuak zazpigarren aldiz aztertu du Nazio Batuen Erakundeko torturaren aurkako batzordeak.

# Enpresa publikoak eraitsiko du Garoña

 AITOR GURRUTXAGA MUÑAGORRI

**G**aroña zentral nuklearra eraisteko baimena eman du Espainiako Gobernuak. Hala, Espainiako Gobernuaren Enresa enpresa publikoaren esku geratu da instalazioaren titulartasuna, eta eraisketa lanetarako guztira 475 milioi euroko gastua aurreikusi dute. Zentral nuklearra funtzionamenduan aritu den bitartean, 40 urtetako etekin ekonomikoak pribatuak izan direla eta orain eraisteko gastuak publikoak izango direla salatu du Araba Garoña Gabe plataformak.

Espainiako Gobernuaren Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikoarako Ministerioak (MITECO) uztailaren 17an eman zuen eraikina eraisteko baimena. Horrekin batera, instalazioaren titulartasuna Nuclenorreña (Iberdrola eta Endesarena) izatetik Enresa enpresa publikoarena izatera igaro zen. Kritiko mintzatu da Araba Garoña Gabe plataformak: "Titulartasuna eskualdatzeak dakar, finean, zentrala deseraikitze lanak denon poltsikotik ordainduko direla; hau da, aurrekontu publikoetatik, eta ez Iberdrolak eta Endesak 40 urtean jasotako etekinetatik".

Eraisketak bi fase izango ditu: lehenengoan (2023-2026), sistema, egitura eta instalazioak deseraikiko dira; bigarrenean (2027-2033), guztiz eraitsiko da. Guztira, esan bezala, 475 milioi euroko gastua izango dute eraiste lanek, eta 350 pertsona inguruk parte hartuko dutela aurreikusi dute.

## ORAINDIK ERE ARRISKUA

Hondakinen kudeaketa "ehunka urtez" luzatuko dela azaldu du plataformak. Gainera, horretarako eraiki duten biltegi batera mugituko dute erregaiak, eta ondorioz Nuclenorrek "hilerri nuklearra" utziko duela salatu du. Izan ere, hilerriak ekarri ditzakeen "kutsadura erradiologikoak" arriskutsuak izan daitezkeela azpimarratu dute.

1971n jarri zuten martxan Arabako mugetatik 5 kilometrora dagoen Santa Maria de Garoña zentrala. Orduetik, nuklearren aurkako elkarte eta talde ekologistek behin eta berriz kritikatu eta mobilizatu dira Garoñaren aurka, hala nola segurtasun falta egotzita. Hiriguneetatik gertu kokatuta egotea ere salatu dute sarri, Gasteiztik esaterako. 2009an Eusko Legebiltzarrak nuklearra ixteko eskatu zion Espainiako Gobernuari, hainbatean eskatu dio berbera Gasteizko Udalak. 2013an agindu zuen Garoñako jardueraren etetea Espainiako Gobernuak; 2014an Endesak eta Iberdrolak berriz ekiteko baimena eskatu zuten; eta Energia Ministerioak 2017an ukatu zien baimena behin betiko. ●





# Interruptus



ULA IRURETAGOIENA

**E**txebizitzaren energia aurrezpenerako eraikuntza-lanak egiteko dirulaguntzen leihatila bat-batean itxi egin da. Irudikatu ezazue ilaran gelditu direnen haserrea. Arkitektoak, eraikitzaileak, komunitateen administrariak, bizilagunak... Proposamenak jasotzeko deialdia azaroa arte indarrean zegoen, baina europear diru-funtsen zorroa agortu egin dela esan du berriki Eusko Jaurlaritzak, Euskal Autonomi Erkidegoari zegozkion 130 milioi banatu egin direla dagoeneko. Kalteturik gelditu direnak bildu egin dira eta salatu dute ez dela posible programa bertan behera uztea bestelako aukerarik eman gabe. Diotenez, gutxienez funtsen bikoitza beharko da ilaran gelditu direnen proposamenak burutzeko. Hainbeste sustatu den erai-kinen energia aurrezpeneko inizatibak herritar kultura bat sortu duela azaldu dute, eta dirulaguntzen etenak min ikaragarria egin dezakeela josten eta lantzen aritu den bidea, ekarriko dituen ondorio ekonomikoekin batera, noski.

Next Generation funtsak eraikuntzaren sektorean eragin handia izaten ari dira, zaharberritze arloan bereziki. Ez da batere bide erraza funts hauetan izena ematea, pentsa, arkitekto askok ikastaroak jaso dituzte inprimakiak eta eskara ondo betetzeko. Diru-iturri handi bat da/izango da arkitektoentzat, besteak beste. Etxebizitza parke zaharritua daukagu eta energia aurrezpeneko eskaera garaikideak betearazteko eraikuntza lan handiak burutu behar dira. Egokitzapenok inbertitze handia suposatzen dute, baina dirulaguntzen bitartez asko animatu dira prozesua abiatzera. Ahoz aho zabaldu da eraikuntza egokitzapenek ekartzen duten energia-fakturaren aurrezpena eta konfort klimatikoa.

Dirulaguntzen ilaran jartzeko arkitektura lan handia behar da aurrez, eta leihatila irekitzen ez bada, ez du ezertarako balioa. Arkitekto Elkargoak dirutan zenbatu nahi du etenaldiak kolektiboari ekar diezaiokeen ondorio ekonomikoa.

Ea hauteskundearen emaitzek nola eragiten duten afera honetan... ●



## 4.000 alegazio berriztagarrien planari

URKO APAOLAZA AVILA

**E**usko Jaurlaritzaren Gasteizko egoitza aurrean elkarretaratu dira talde ekologista ugari, zentral eolikoaren eta poligono fotovoltaikoaren garapen "kolosala" ekarriko lukeen Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialari alegazioak aurkeztearekin batera: "Zalantzarik gabe erabaki historikoen aurrean aurkitzen gara, energia trantsizioari dagokionez". Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan "hamarnaka zentral eoliko eta eskala handiko poligono fotovoltaiko ezartzea aurrikusten duen plan hori bertan behera utz dadin eskatzeko" bildu dira.

Denera 4.000 alegazio baino gehiago aurkeztu dizkiote LPSari, eta horietatik 3.500 inguru Euskal Herria Bizirik ekimenak bideratu ditu. Aurkezpenean, Rebeca González de Alaizak eta Mikel Alvarezek hitz egin dute, eta esan dute halako plan baten tramitazioa "zetzugabea" dela, energia enpresa handiei eta inbertsio funtsei mesede egiten dien eredu bat bultzatzen duelako.

ARGIAk alegazioaren txostena eskuratu ahal izan du, eta bertan egileek hainbat arlotan nabarmendu dituzte planak eragingo lituzkeen kalteak eta prozedurak berak dituen akatsak.

### EZARRITAKO HELBURUAK HIRUKOIZTU

Alegazioaren arabera, Energia Jasangarritasunaren Lege autonomikoak "energiaren tokiko gestio komunitarioa" bultzatu nahi badu ere, plan horrek "eskala handiko azpiegituren" menpe jartzen du arestiko asmo hori. Are gehiago, egungo estrategia energetikoak jarritako helburuak –energia produkzioari dagokionez– hirukoiztu egiten ditu berriztagarrien LPSak, 3,4 GWh-tik 11,5 GWh-ra: "Justifikazina da administrazioak bultzaturiko plan batek, egungo energia estrategian administrazio horrek berak ezarritako aurreikuspenak horrela gainditzea".

Zentral eolikoek eta fotovoltaikoek eragingo lituzkeen ingurumen kalteak ere xehatzen ditu alegazio txostenak: paisaiari, landareriari eta faunari, bioaniztasunari eta ondare kulturalari eragingo lizkioken kalteak, besteak beste.

Prozeduraren inguruan dauden akatsak eta hutsuneak ere salatu dituzte alegazioaren egileek. Esaterako, LPSa egiteko aurkezturiko eta informazio publikoan jarritako planoen kalitate eskasa.

Gogorarazi dute munduko analista ugari ohartarazten ari direna: hurrengo hamarkadatan egungo gizartearen kontsumo energetikoa %80 jaitsi beharko dela, eta testuinguru horretan energia berriztagarriak erabili daitezkeela gizarte "hiperindustrial" mantentzeko –zentral eolikoaren eta fotovoltaikoaren garapen "kolosal" batekin– edo beste eredu ekonomiko eta sozial bat sortzeko, energia kontsumoaren ikuspegitik ez hain intentsiboa eta komunitateen benetako beharrak asetuko dituen. ●

# TRANTSIZIO EKOLOGIKOA ETA JUSTIZIA BATZEN DITU LUXUZKO KONTSUMOAREN ZERGAPETZEAK

Poliki-poliki bidea egiten doa munduko aberatsenei bideraturiko karbono-zergaren ezarpenaren ideia. Bistan da, ultra aberatsak sutsuki dira horren aurka eta dirua boterea denez, eragina dute erabakian. Baina, aldi berean, dela ekonomialarien argumentuak ala testuinguru sozioekologikoak, geroz eta datu gehiagok dute neurri fiskal horren beharra azpimarratzen. Azkenik, uztailaren 11n Suitzako eta Ingalaterrako bost zientifikok plazaraturiko ikerketa doa zentzu horretara: luxuzko kontsumoa zergapetzeak urtero %6 murriztuko lituzke pribatuen isurketak, 2050erako 100 gigatona karbono baliokideren isurketa saihestuta –beroketa globala bi gradutara mugatzeko herritarrok egin beharko genukeen murrizketaren %75–.

## JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

**T**rantsizio ekologikoa justizia klimatikoarekin errimatzen duen proposamen serio bat lan-du dute Lausanne (Suitza) eta Leeds (Ingalaterra) hirietako unibertsitateetako Yannick Oswald, Joel Millward-Hopkins, Julia K. Steinberger, Anne Owen eta Diana Ivanova ikerlariek, zeinetan ondokoa frogatzen duten: “Luxuzko ondasunen gaineko karbono-zergak nabarmen lagun dezake Parisko Akordioaren helburuen lorpena”.

Uztailaren 11n plazaratu dute *Luxury-focused carbon taxation improves fairness of climate policy* (“Luxura bideratutako karbonoaren gaineko zergak klima-politikaren bidezotasuna hobetzen du”) ikerlana *One Earth* komunikabidean. Orotara 88 herritako errealitateetik abiatuak –munduko BPGaren eta biztanleriaren %90 ordezkatzen dutenak– luxuzko ondasunen zergapetzeak ingurumenean lituzkeen emaitzak aurkeztu dituzte. Emaitza esanguratsua da: urtero %6 murriztuko lituzke pribatuen isuriak, 2050erako 100 gigatona karbono baliokideren isurketa saihestuta –beroketa globala 2°C-tara mugatzeko herritarrok bideratu beharko genukeen isurketen murrizketaren %75 da, eta 1,5°C-ko heinaren azpitik egoteko egin beharko genukeenaren ia herena–.

Aberatsak ohiko herritarra baino anitzez gehiago kontsumitzen duelako: %10 aberatsenek isurketen %50 eragiten dute. Urtean, batez beste 8.190 tona CO<sub>2</sub> ondorioztatzen ditu bilioidun bakar batek, herritar arruntak baino mila aldiz gehiago. Eta hori begirada kontsumora bakarrik mugatuta. Hau da, inbertituriko diruaren ondorio ekologikoa ez da kontuan hartzen: urtean 2,4 milioi tona CO<sub>2</sub> ondorioztatzen du ultra aberats batek, ohiko herritarrek, 10,7 tona CO<sub>2</sub>.

Hori horrela, klima erronkari aurre egiteko orduan, aberatsei mugaturiko betebeharrak bideratzeak zentzu osoa du. Ikerketaren arduradunek, sinpleki bezain argiki oroitarazten dute: “Distantzia handiko hegaldi bat egitea edota udan Porsche kabrioleta gidatzea... aberastasanak du isurketa eragiten, ez dago oinarritzko beharrik hor”.

### **KARBONO-ZERGAK EZBERDINTASUN SOZIALAK AREAGOTZEN DITUELAKO**

1997an onarturiko Kyotoko protokoloak ireki zion bidea karbono gaineko zergari, ideia izanik karbono isurketari loturiko kontsumoa zergapetuta kostua emendatzea eta beraz kontsumoaren gutitzea ondorioztatzea –horrela lortuko litzateke karbono isurketen apaltzea–. Gerora, zergaren gauzapean erakustera eman digu

herritar zaugarrienak kaltetzen dituela, eta azkenean, ez dela hain eraginkorra, horien oinarritzko beharrei erantzuteko kontsumoak direlako eta ezin direlako saihestu –demagun, lanera joateko autoa hartu beharra, edota negu gorrian etxea berotu beharra–. Hori izan zen Jaka Horien haserrea piztu zuen osagaietariko bat.

Ondorio hori oinarri harturik, zentratu dute zergapetze politika luxuzko produktuetara –hots, oinarritzko behar gisa sailkatu ezin diren kaprizetara–. “Egia den arren isurtzen den karbono-tona bakoitzak klima-eragin bera duela, hori ez da egia eskariaren edo justizia sozialaren ikuspegitik, karbono-tona horrek onura desberdinak ematen baititu kontsumitzailearen ala kontsumitzen duenaren arabera. Ondorioz, karbono-tona guztiak ezin dira modu berean saihestu”. Produktuaren araberakoa litzateke zergaren heina eta herrien arabera ere ezberdintasunak egonen lirakeke: herrialde txiroetan 10 dolar inguru litzateke karbono-tona, baina AEBetan 150 dolar inguru –kasuan kasu, gutiago ala gehiago izanik, kontsumitzailearen arabera–.

Zentzu berera doa urte hastapenean Desberdintasunaren Munduko Laborategiak publikaturiko klima ezberdintasunei buruzko txostena. Beren kalkuluei segi, planetako aberatsenen %0,1 –5 milioi do-





### **%10 ABERATSENEK ISURKETEN %50 ERAGITEN DUTE**

Aberatsenen kontsumoari begiratu eta luxuzko kontsumoen partea neurrigabekoa dutela erran daiteke. Eragindako CO2 isurketa herritar arruntarena baino mila aldiz handiagoa du aberatsak. Horregatik du aberatsen zergapetzeak klima aldaketan ere eragina, kontsumo hori txikitu beharko lukeelako.

lar baino gehiago dituzten ultra aberatsak- zergapetzeak urtean ia 1.100.000 milioi dolar ekar ditzake. Diru zama interesgarria, kontuan harturik herri zaurgarriek trantsizio ekologikoa bideratzeko 1.800.000 milioi dolar behar dituztela...

### **ONDOKOA BAINO HARROAGO IZAN NAHIA**

Jet pribatu ala yate, ultra aberatsen neurrigabeko kontsumoa hobeki ulertzeko gakoak ematen ditu *Reporterre* komunikabideak *Taxer les ultrariches, l'idée qui fait son chemin* ("Ultra aberatsak zergapetu, bidean aitzina doan ideia") erreportajea. Zehazkiago, XIX. mendeko ekonomialari Thorstein Veblen-ek garaturiko teoriari tiraka dabil kazetaria: "Ekonomian ondoko printzipioa da nagusi: lehiatzeko joera -besteekin alderatu, besteak gutxieteko- giza izaeraren ezaugarri ezabaezinetako bat da. Ezberdintzeko bitartekoa da aberastasuna, eta bere funtsezko helburua ez da behar material bat asetzera, baizik eta 'bereizkuntza probokatzailer' bermatzea, hau da, goi-mailako estatusaren seinaleak erakustea". Jendarte printzipio horrek bideraturikoa dela dio Veblenek, klase oro dagoelako bere goikoaren harrokeria keinuak imitatzen edo imitatu nahian. "Orotara, imitazioak hondakin uholdea dakar, piramidearen goialdean dagoen bizimodu negargarriak gizarte osoaren bizimoduak bideratzen dituen heinean. XXI. mendearen hastapen honetan bezala, desberdintasun izugarriak ditugunean, hondakin joera horiek asko eragiten dute bizimoduetan, eta ekologikoki jasanezin bihurtu dira".

Hala ere, *One Earth*-eko txostenaren egileek aitortzen dute zerga-politika

horren gauzapena errealista bada ere, konplexua dela, besteak beste, kontsumo-produktu bakoitzaren sailkapena eta zerga-heina finkatzea bera ez direlako simple. Eta nola ez, aberatsen partetik aurkako mugimendua dagoelako, eragin handikoa gainera. Horretaz aritu ginen otsailaren 26ko astekarian, zehazki, *Klimaren auzian erabakiak bideratzea da ultra-aberatsen estrategia* erreportajea.

Baina, egingarritasuna ez dute zalanztan jartzen. Azkenik, ehun bat ekonomialari eta eurodiputatuk testu bateratu bat izenpetu dute, zeinetan ondokoa irakurri dezakegun: "Multinazionalen gaineko zergak bideratzea lortu badugu, aberatsenen gainekoak ere lortu ditzakegu". Justizia klimatikoan aitzina egiteko urrats fiskal hori galdetzen diete NBERi eta Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeari. ●




ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

[zinkunegioptika.com](http://zinkunegioptika.com)



Evil Eye

# Ángeles Cruz

KOMUNITATEAN BETI



## EZ GATUZ INOREKIN LEHIATZERA, GURE ISTORIOAK KONTATZERA BAIZIK



Ángeles Cruz zinemagilea da, baina ahaztu itzazu industria horren dinamika patriarkal, arrazista eta kapitalista guztiak. Misteka herri indigenakoa eta lesbiana izanik, "komunitatea" da Cruzek gehien errepikatzen duen hitzetako bat. Hortik egiten du zinema, eta ez die beldurrik gai arantzatsuei: besteak beste, sexu-abusuak, dolua eta emakumeen aurkako indarkeria aztertu ditu bere lanetan.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  HODEI TORRES / ARGIA CC BY-SA

**Iaz, Zinegoak jaialdiko Genero eta lesbianismo saria jaso zenuen *El nudo mixteco* filmari esker. Aurten, berriz, jaialdiko sari nagusia eman dizute. Nola hartu duzu?**

Etxean sentitzen naiz, babestuta. Mexiko herrialde guztiz arrazista, klasista eta homofobia da, eta Zinegoak besarkada honek gure lurraldeak zabaltzeko eta gure aniztasuna bere osotasun osoan berresteko balio digu. Gauza handia da hori gure komunitate indigenentzat.

**Zer-nolako lekua du komunitateak zure obran?**

Gizarte honetan, indibidualismoa bultzatzen da, besteekin lehiatu behar garela esaten digute, nabarmendu egin behar

dugula. Baina, nire iritziz, komunitatean ibili behar dugu. Villa Guadalupe Victoria izeneko leku batetik nator, geure arau propioen arabera bizi gara han, lur komunalak lantzen ditugu, eta nik hortik egiten ditut filmak. Bizitza honetara ez gatoz elkarren aurka lehiatzera, baizik eta elkarrekin bidea egitera.

**Ikuspegi hori nola gauzatzen da filmak egiteko garaian?**

Filmak egiteko bestelako sistema bat sortzen saiatu gara. Arlo bakoitzeko buruek soldata berdina jasotzen dute, eta komunitateak ere ordainsaria jasotzen du. Nik baimena eskatzen diot nire komunitateari bertan filmatzen hasi aurretik. Asanbladaren aurrean aurkezten

du nire proiektua, eta erabateko askatasuna eman didate nik nahi dudana gaiei buruz hitz egiteko, nik erabaki dudana terminoetan. Eta horrek ardura bat dakar berekin, ardura etiko bat norberaren komunitatearekiko. Nire kasuan, fikzioa gustatzen zait, sekulako askatasuna ematen du nahi dugunari buruz jarduteko eta gure bizimoduaren hainbat alderdi zalantzan jartzeko.

**Hori guztia ez dator bat zinema-industriaren molde nagusiarekin, edo?**

Egia da. Gu ez gatoz inorekin lehiatzera, gure istorioak nahi dugun tokian kokatzen ditugu, nahi dugun jendearekin, eta gure filmak erakusteko espazioak bila-





# Ángeles Cruz

MEXIKO, 1969



Oaxacako mendietako komunitate misteka batean jaioa eta hezia, gazterik hirira aldatu behar izan zuen, aita hil eta gero. Antzerki ikasketak egin zituen, eta aktore gisa hasi zen zinemaren munduan. 2010eko hamarraldian, ordea, gidoiak idazteari eta filmak zuzentzeari ekin zion, ikuspegi komunitario sendo batetik. Hiru film labur eta bi film luze kalera-tu ditu, eta hainbat sari jaso.

tzen ditugu. Ikus-entzunezkoen industria suntsikorrak, berriz, etekin ekonomikoa besterik ez du bilatzen. Guk ez. Guk istorioak kontatu nahi ditugu, beste pertsona batzuegana iritsi, eta gure galderentzako beren erantzunak bila ditzaten akaso. Horrela ulertzen dut zinema, horrela iritsi zitzaidan.

## Oker ez banaiz, hamasei urte bete arte film bakarra ikusi zenuen.

Bai, *El joven Juárez*, Mexikoko lehen presidente indigenari buruzkoa. Gure aitak film hori zeukan, eta pareta batean proiektatzen zuen. Hori jakinda, ondo ulertuko duzu zer-nolako inpresioa egin zidan lehen aldiz zinemara joan nintzenean film bat pantaila handian ikustera. Errebelazio bat izan zen, bizitza aldatu zitzaidan, eta iruditzen zait zinemak baduela ahalmen hori: berdin du nongoa zaren edo nor zaren, hunkitu egiten zaitu, zure arima beste mundu batzuetara garraiatzen du. Ahalmen horrek liluratu egiten nau oraindik.

## Aktore lanetan hasi zinen.

Nik, berez, ingeniari agronomoa izan nahi nuen, eta lurra landu. Baina gure aita hil zenean hirira joan ginen, amak artritisa zeukalako, eta gure komunitatea oso hezea delako. Oaxacara joan ginen, eta institutuan era guztietako arteak ezagutu nituen. Antzerkia izugarri kostatzen zitzaidan. Oso gutxi hitz egiten nuen garai hartan, eta erronka bat zen niretzat. Gehien kostatzen zitzaidana, horixe egin nahi nuen; halako burugogorra nintzen txikitatik [barreak], eta Mexiko Hirira joan nintzen antzerkia ikastera.

## La hija del puma izeneko filma izan zenuen estreinako lana.

Guatemalako komunitate indigenen aurkako sarraskiei buruzkoa zen, eta uste dut nire ibilbideari ekiteko modu ona izan zela, baina urteek aurrera egin ahala, ohartu nintzen beti antzeko pertsonaiak eskatzen zizkidatela. Esan dudan moduan, gure herrialdea oso arrazista, klasista eta homofoboa da, eta estereotipoz jositako pertsonaiak bakarrik eskaintzen zizkidaten. Oso ikuspegi negatiboetatik lantzen ziren pertsonaia haiek: biktima edo gaizkilea nintzen. Azalaren koloreak eta gorpuzkerak eragina dute horretan. Halako batean, nekatu, eta ezetz esaten hasi nintzen. Hortxe sentitu

nuen geure istorioak idazteko eta kontatzeko premia. Beraz, komunitatera itzuli, eta geure istorioak kontatzen hasi nintzen.

## 2011n egin zenuen zure lehenengo film laburra, *La tiricia o cómo curar la tristeza*. Haurtzaroko sexu-abusuei buruzkoa da.

Aktore gisa krisi bete nengoela, nire familiatik oso gertu dagoen pertsona batek esan zidan sexu-abusuak jaso zituela haurtzaroan, berrogei urte lehenago edo. Ez nintzen gai izan bera besarkatzeko, emozionalki oso trakets sentitu nintzen, eta gainean geratu zitzaidan tristura hura. Barruan geratu zitzaidan, ez ninduen bakean lagatzen, eta ateratzeko beharra sentitu nuen. Adiskide baten laguntzaz, gidioia idatzi nuen, eta argi ikusi nuen nire komunitatean egin nahi nuela filma.

## Zergatik?

Azken batean abusu-kasu bat zen, indarkeriazko eta isiltasunezko zirkulu batean harrapatua. Nola hautsi zirkulu hori? Bada, nire kulturaren eta nire hizkuntzaren bidez, autokritika eginez eta istorioa hortik abiatuz. Hortxe ulertu nuen zer egin nahi nuen bitzitan, nire lekua aurkitu nuen.

## Jendeari kostatzen zaiola haurtzaroko sexu-abusuei buruz hitz egitea, are gehiago norbere inguruan gertatzen denean. Zernolako harrera izan zenuen lanak?

Filma bukatu ostean, hamaika lekutan erakutsi genuen, baina zailena, niretzat, neure komunitatean aurkeztea izan zen. Nire komunitateko gaine-rako kideek, nik bezala, film bakarra zeukaten ikusita, beraz, zinema-ziklo bat prestatu genuen. Beste filmekin jendeak barre egin zuen, pantailari oihu egiten zioten: erreakzionatu egin zuten. Gurea hasi zenean, ordea, mutu geratu ziren. Izugarria izan zen: ez txalorik, ez iruzkinik...

## Eta?

Halako batean, haur batek hitza hartu, eta esan zuen bera ez zela filmeko pertsonaiak bezalakoa, eta bere arrebari zerbait egiten bazioten ez zela isilik geratuko, gurasoei esango ziela edo garrasika hasiko zela. Eta 11 urteko mutiko horren hitzei esker, hitz egiten hasi ginen. Filmak hamar minutu irauten ditu, bada, bi orduz aritu ginen



gero. Besteak beste, helduok gai horretan daukagun arduraz hitz egin genuen: haurren jokaerari eta alarma-seinaleei adi egon behar dugu bai ikasgeletan bai egunerokoan. Gainera, kontuan hartu behar da landa eremuko umeeek ordu asko egiten dituztela oinez eta bakarrik. Oso hausnarketa zabala izan zen.

**Zure bigarren film laburrean, *La carta*, lesbianismoa landu zenuen.**

Uste dut sexu aniztasuna tabua izan dela gure komunitateetan. Tehuantepec-eko istmoko muxek idealizatu ohi dira [zapoteka herriko sexu-identitate bat osatzen dute muxek, genero-arau bitarretik kanpo], baina, egiaz, gure komunitateak patriarkalak eta matxistak dira oso. Lesbianismo indigenaren gaia apenas landu den, eta niretzat garrantzitsua zen emakume lesbianak kokatzea nire komunitatearen testuinguruan, atea irekitzea, armairutik ateratzea, eta geure burua izendatzea. Bestela, ematen du ez garela existitzen.

**Filmak amaiera zorionsua duela esan daiteke: bi protagonistek topo egiten dute urte luzeen ostean, eta beren bizi-proiektua elkarrekin egitea erabakitzen dute. Komunitatetik alde egiten dute horretarako, ordea. Egia da oso amaiera errealista dela, baina zergatik erabaki zenuen hortik jotzea?**

Ba, horrexegatik hain zuzen. Maiz posible izaten da zapalkuntza-eremuak eraldatzea, baina beste batzuetan ez. Komunitateetako emakume lesbiana askok komunitatea utzi dute horregatik, eta ekintza horretan askatasuna bilatzeko ahalegin bat dago, ez dira ihesak, ezpada lurralde berrien konkistak. Munduan bizi gara, unibertsoan, eta elkarrekin bidea egin behar dugu beste leku batzuetan ere. Beste komunitate batzuk ere sortu behar ditugu, komunitate berriak.

**Komunitatea utzi ez ezik, komunitatera itzultzen diren istorioak ere irudikatu dituzu. Esate baterako, *Nudo Mixteco* film luzean.** Bai, gidoia idatzi nuenean, migrazioari buruzko istorio bat zela uste nuen, herriko jaietan beren komunitatera itzul-

tzen diren hiru emakume baitira protagonistak. Baina hara non ohartu nintzen hiru emakume horiek, funtsean, beren eskubideak aldarrikatzen zituztela: beren lehen lurraldearen gainean —hau da, beren gorputzaren gainean— erabakitze eskubidea eta, bestalde, gozatzeko eskubidea. Emakumeok asko borrokatu behar izan dugu gure gozamenaren eta gure gorputzaren gaineko askatasuna izateko.



**“Gure komunitateak patriarkalak eta matxistak dira oso, eta niretzat garrantzitsua zen emakume lesbianak kokatzea nire komunitatearen testuinguruan”**

Kanpotik zalantzan jartzen dituzte beti gure erabakiak, gure itxura, nor maite dugun... Eta horren jabe izateko bataila berak borrokatu behar izan ditugu emakume guztiok.

**Zure filmetan bada beste alderdi bat oso interesgarria: hizkuntzaren tratamendua. Gaztelania eta misteka biak agertzen dira.**

Gidoia bi hizkuntzetan idatzita dago, eta

hori oso erabaki kontzientea izan zen, komunitateetan bi hizkuntzak mintzatzeko baitira. Gero, grabatzeko orduan, aktore bakoitzak aukera zezakeen zer hizkuntzatan hitz egin, non sentitzen zen erosoago. Hizkuntzak ere gure lurraldeak dira, eta kendu egin dizkigute. Orain mundu guztiak ingelesez mintzatu nahi du, eta kezkatu egiten dira ingelesez ez badakizu [barreak]. Ba, ez da nire lehen hizkuntza. Misteka da nire lehen hizkuntza, gaztelania bigarrena, uste dut nahikoa izan daitekeela horrekin.

**Berriki amaitu duzu zure bigarren film luzea, *Valentina o la serenidad*.**

Haurtzaroko doluari buruzkoa da, 2020an idatzi nuen. Bederatzi urte nituela galdu genuen aita, auto-istripu batean, eta 2020an pandemia hasi zenean niri sekulako beldurra piztu zitzaidan. Umezaroko zaugarritasunaz gogoratu nintzen; garai batean nire neba txikiarekin bakarrik konpartitu nuen min hori: galera saihestezin hura ez onartzeko, aita beste nonbait zegoela asmatzen genuen, eta beste mila istorio.





### **Grabaketa-prozesua berezia izan da.**

Gidoiaren lehen irakurketa egiten ari ginela, pandemia betean, nebak deitu zidan, covidaren zeukala esanez. Harengana jo nuen berehala, oxigenoa behar baitzuen; neu ere kutsatu nintzen, jakina, eta azkenean nebak okerrera egin zuen eta hil egin zen. Sekulako kolpea izan zen niretzat. Pentsamendu absurdoak nituen, iruditzen zitzaidan neuk egin niola dei heriotzari. Oso urte zaila izan zen, baina hara non, 2021ean, nire komunitateko agintaritzaren parte egin ninduten, eta izendapen horren ondorioz komunitatean geratu behar izan nuen, guztiontzako lan egiten.

### **Azalduko zenidake apur bat gehiago zertan datzan izendapen hori?**

Zerbitzu baten modukoa da, ez duzu soldatarik jasotzen. Asko haserretu nintzen, covidarekin nengoen eta gainera *Nudo Mixteco* aurkezten ari ginen. Komunitateko zerbitzu horretan zabiltzanean, baimena eskatu behar duzu komunitatetik ateratzeko, eta lau baimen bakarrik dauzkazu. Eta ez dakizu zer lagungarria izan zen. Esan nuen: ok,

suertatzen dena onartu behar da. Hots, filma aurkeztera joaten nintzen, baina berehala itzuli behar nuen komunitatera, eta janaria erosi igeltseroentzat, edo parkea garbitu behar, edo behar dena. Asko lagundu zidan horrek, eta, gainera, tarte horretan filma grabatu dugu. Orain postprodukzio fasean gaude, eta aurten estreinatzea espero dugu.

### **Zertan zabilta orain?**

Bi gidoi egiten ari naiz, bata lagun batenz, eta bestea animaziozko proiektu baterako. Bestalde, nire komunitatea lurralde-gatazka larri batean sartuta dago aspalditik, eraso bat gertatu da duela gutxi, eta irudiak eta lekukotasunak biltzeko eskatu dit komunitateak berak. Inoiz eskatu didaten gauzarik zailenetako bat da, egia esan. Nik ez dut dokumentalik egin nahi izan inoiz, oso eremu delikatua iruditzen zait, lerro etikoa oso fina da, eta duintasunez landu behar da.

### **Azalduko zenidake gatazka hori zertan datzan?**

Aldameneko komunitatearekin lurralde-gatazka larri bat daukagu duela 40

urte. Lurraldea jaten joan zaizkigu, eta aurten indarkeria areagotu da. Gure komunitateko agintaritzak estatu-agintaritzara jo zuen, elkarrizketa-mahai bat zabaltzeko eta presio-eltzea apur bat baretzeko. Maiatzaren 2an akordio batzuk adostu ziren, eta 12an sinatzeak ginen, baina horren aurretik, maiatzaren 5ean, beste komunitateak eraso egin zigun, oso modu bortitzean, arma luzeekin eta komando paramilitar batekin. Hiru lagun hil zituzten, eta beste asko zauritu. Zorionez, gure komunitateak baretasunari eusten jakin du, baina bi hilabete pasa dira eta oraindik ez dugu justiziarik jaso.

### **Indar handia bide horretarako. Beste zerbait gehitu nahi zenuke?**

Sariaren harira, berriro esan nahi nuke asko eskertzen dudala besarkada hau. Zinegoakek lan hunkigarria egin du azken 20 urteotan, komunitate bat osatu dute, askea eta anitza. Hori funtsezkoa da mundu lehiakor eta indibidualista honetan. Funtsezkoa da halako espazioak sortzea gure lurraldeetan, eta komunitateak berak estimatu egin behar du. ●





## Bartzelona galtzea

**J**oan den maiatzaren 28an egin ziren azken udal hauteskundeak, beste behin, emaitza oso estua utzi zuten Bartzelonan. 2015ean Ada Colau sartu zen arte, alkate izan zen Xavier Trias *convergent*-ak, 76 urterekin, inkestak gezurtatu zituen eta ia 150.000 boto eta 11 zinegotzirekin irabazi zuen. Zalantzarik gabe, Colaren aurkako alternatiba bakarra bihurtu izanak botoak biltzen lagundu zion, batez ere hiriko gunerik dirudunenetan, partaidetzak behera egin ez zuen leku bakarretan, hiri osoan sei puntuko beherakada izan baitzuen 2019koen aldean.

Jaume Collboniren Kataluniako Sozialisten Alderdia (PSC) eta Ada Colaren Barcelona en Comú (BeC), azken lau urteetan hiria koalizioan gobernatu duten bi alderdiak, bigarren eta hirugarren geratu dira, hurrenez hurren, 141 botoren aldearekin. Beraz, PSCren 10 eserlekuek eta BeC-ren 9ek beste talde baten babesa behar zuten nahitaez, gehiengo absolutua lortzeko (21) eta irabazlea kargutik kentzeko. Hasiera batean, presio guztia ERCK zuen, 5 zinegotziraino hondoratu zenak, 85.000 boto eta aurreko legegintzaldian zituen eserlekuen erdia galduta.

ERCK paper garrantzitsua jokatu du azken urteotan Kataluniako politikan, eta harrigarria bada ere, etorkizun hurbilean bigarren postura itzul liteke. Junts alderdiaren independentismo eskuindar eta neoliberal berriaren mendeko rolean harrapatuta *-procès*-a aurrera eramateko-, apustu egin du emantzipatzeko

Bartzelonako eragile,  
erakunde eta  
gizarte-mugimendu  
askok Barcelona en  
Comú-rekin sentitu  
dituzten haserrea eta  
etsipena izugarriak  
izan dira

eta akordioak egiteko politika aldatzeko, profila ezkerreko markatzeko eta PSC eta Comúnseko boto-emaileak erakartzeko; baina badirudi horrek kolokan jarri duela ustez lortuta zuen hegemonia. Alde batetik irabazten badu, bestetik galtzen du eta alderantziz, eta jendea ez dago erdizka aritzeko.

Horren jakitun, Comúnsetik hordagoa bota zioten Ernest Maragalli, 80 urterekin Bartzelonarako ERCren hautagaia izan denari. Alkatetza kendu zioten duela lau urte -nahiz eta hauteskundeak irabazi zituen-, PSCrekin gobernatzeko akordioa eginda Manuel Vallsen (Ciudadanosen marka zuria ordezkatzeko duen Frantziako lehen ministro ohia) babesari esker; eta orain, eskatzen zioten babesteko PSCrekin egindako beste "ezkerreko" akordio bat, alde batera utzita PSCk Junts alderdiaren politika neoliberal bera sustatzen duela. Aitzitik,



**DAVID BOU**  
DIRECTA-KO KAZETARIA

ERCK ardatz nazionala lehenetsi zuen, eta Triasekin negoziatu zuen alkatetza ematea eta gobernu bateratua osatzea. Azken orduan, Madrilek dena eztanda-razi zuen.

Jaume Collboni bakarkako gobernarako alkate izendatu zuten, Comuns-en botoekin eta, sorpresa, Alderdi Popularrereko lau zinegotzien botoekin. Colaren eskuineko eskuak egun batzuk lehenago publikoki ziurtatu zuten beraien botoekin ez zutela ekuazio hori erraztuko, baina guztia aldatu zuten bipartidismo espainolaren itunak eta alkate ohiak, inbestidura saioa baino ordu gutxi lehenago bere zinegotziekin bildu ostean, izandako jarrera aldaketak.

Hiriko eragile, erakunde eta gizarte-mugimendu askok BeC-rekin sentitu dituzten haserrea eta etsipena izugarriak izan dira. Azken bi hauteskundeetan boto asko lortu dituzte beren ezkerretik, neurri handi batean CUPi eragin diona bigarren legegintzaldiz jarraian udal-txetik kanpo geratzea. BeC-ek erakutsi du lehentasuna ematen diela estatuko politikaren segida egiteari eta PSOE-ren makulu izateari, ezker subiranista eta independentistarekin zubiak eraiki beharrean. Eta hori, zoritxarrez, berri txarra da gutako askorentzat, baina berarentzat ere bai; horrela, Iniciativa per Catalunya Verds-ek (ICV) M15a baino lehen zuen hondar-eremu berera murriztuta bukatuko dute. Eta ez, ez zuten esaten hori zutenik helburua Guanyem Barcelona izenez jaino zirenean. ●

# Euskal literaturaz hiru gogoeta



**KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE**  
LITERATUR ZALEA

PAULA ESTÉVEZ

Uztailaren 12an UEUk antolatu jardunaldi biziki interesgarria iragan da Baionako Etxepare lizeoan, parte hartzaile frankorekin: *Euskal literaturaren irakaskuntza gogoetagai: tokikotasuna, lurraldetasuna eta kolektibo azpiratuak*. Egun osoan ibili solasek hiru gogoeta eginarazi zizkidaten.

Lehen hausnarketa, literaturaren irakaskuntzari buruz izan zen. Ipar Euskal Herrian, edozein ikaslek bururatzen ditu ikasketak frantses erreferentzia literario ugari eta sendorekin. Frantziako Hezkuntza Ministerioak biziki argi du zein diren gazteei transmititzekoak zaizkien kanon eta panteoi ofizialak, eta literaturak garrantzi handia du lehen eta bigarren hezkuntzan. Hemezortzi urtetan, edozeinek ezagutu beharko lituzke 50 obra, klasiko zein garaikide, mota guztietakoak (eleberri, olerki, antzerki, saiakera, komiki). Hainbat margolan eta film eredugarri aztertutak beharko lituzke ere bai. Bestalde, hamabost urtetan, edonork frantsesaren gramatika osoa jakin behar du, eta ondoko hiru urteetan, estilistika lantzen du. Sistema frantsesak ez dio hainbeste garrantzirik ematen literaturaren historiari, auto-

rearen bizitzari eta literaturari buruzko ikuspegi sozialari; testua modu pertsonalean interpretatzen ikastea da xede nagusia, azterketa eta disertazioen bidez. Euskal literaturan, haatik, programa ofizialik ez: eskolatik atera daiteke hemezortzi urtetan euskarazko liburu bat ere irakurria izan gabe, euskal antzerki edo filmik ikusi izan gabe. Ikusten da hor erronka izugarria dela Ipar Euskal Herrian: nola sustatu literatura-zaletasuna eta euskal kulturarendako atxikimendua klasean, jakitate literarioa ez bada zentrala?

Bigarren iruzkina, Koldo Izagirrerren hitzen haritik doa. "Idolatrutzen" dugun Etxeparek gure kultura herrikoia jakintsuen esparrura nola pasaraz erakutsi zuen. Garai hartan, liburu inprimatzea zen bidea. Egun, saio literario ikusgarrien medioz egiten da. Literatura, klase sozial boteretsuaren kodeekin uztartzen dugu Etxepareren denboratik: bizkitartean, kode horiekin bat egin nahi izatea ez litzateke berez helburu bat izan behar. Ikasle anitzek uste dute, gisa berean, bertsoaritzaz goi-mailako eliteendako ariketa berezia dela, herriaren ahotsa adieraztea delarik bere funtsa.

Badago hor lantzekoa den gaia, bai iraganeko literaturari begira (literaturaren bilakaera klase borrokaren ikuspegitik), bai etorkizunekoari begira: gure kultura literarioa biziartzeko eta erreberritzeko, indartsuek eraiki markoan sarrarazi behar ote da?

Hirugarren pentsaketa, aipatua izan den ikusmolde feministaren ildotik datorkit. Iratxe Retolazak azaldu bezala, beharrezkoa genuke gure literaturaren historia feminismoaren betaurrekoei irakurtzea. Ez *egia* gisa aurkeztuz, baizik eta proposamen berritzaile gisa, literaturaren historiaz bestelako begirada ukan dezagun. Sortzekoa den kontaketa horrek frogaz lezake, konparazione, Etxepare ez dela pentsatzen den bezain modernoa emazteez mintzatzean: bere neurtitzen lirikak badu garaiko lirika europarraren kutsutik, eta hondarrean erakusten duten emakumearen irudia da izaki prestu eta manukorrarena.

Azken finean, UEUren jardunaldi horretatik atera dena izan da lan programa erraldoia ondoko urteetarako, literatura zale garenontzat. Izanen dugu zer egin, elkarrekin. Indarrak har ditzagun, bada, uda goxatuz, lan zamari heldu artean! ●



## PP ere, 3Lren alde



**MIKEL BASABE  
KORTABARRIA**  
IRAKASLEA

**E**uskarari egurra eman eta eman ari da Espainiako Justizia azken aspaldian. Azken aizkorakada (artikulu hau uztail erdialdean idatzitakoa baita) Auzitegi Konstituzionalak eman dio. Susmatzekoa da aurrerantzean beste batzuek ere indar berriz ekingo diotela gure hizkuntza honi egurra emateari. PPK, esaterako.

Eta egur-emate horretan, irakurri zer dioen PPren hezkuntza programak: "151. Bermatuko dugu hizkuntza ofizial bat baino gehiagoko autonomia erkidegoetan, hizkuntza orekaren patroiarekin bat, biak hartuko direla irakaskuntza-hizkuntzatzat, ikasle guztiek gaztelaniaz eta dagokion hizkuntza koofizialean behar bezala jardun dezaten".

Jaurlaritzak eta EH Bilduk legez (hezkuntzako lege-proiektuaren 67.1 artikulua), PPK ere edukiak gaztelaniaz irakatsi gura ditu. Ingelesez ere bai, jakina: garrantzitsuagoa zaionez, programako 150. puntua da. Ez nau harritzen. Alegia, ez nau harritzen PPK hori gura izateak.

Are okerrago, hezkuntza legeak kendu egingo ditu orain arteko hizkuntza ereduak (xedapen indargabetzaile bakarraren 1. eta 2. puntuak). Horrek zer ekarriko du? Bada, orain arte ez bezala, Espainiako lege batek gaztelaniazko gutxieneko irakaskuntza ezartzen duenean, eskola publikoak nahitaez gehitu behar-ko dituela irakastorduk espainolez. Eta

PPren 145. puntuak hauxe agintzen du: "LOMLOE erreformatuko dugu".

Orain arte, eskola publikoan desager-tze bidean dagoen A ereduak balio zuen gaztelaniazko irakaskuntza bermatze-ko, hor ikasgai guztiak ematen baitira erdaraz. Baina hezkuntza legea onartu-takoan eredu bakarra izango dugunez, eredu horretantxe jaso behar-ko dira PPK, gobernura ailegatzen denean, nahitaez gaztelaniaz irakasteko ezarriko dituen gutxieneko ikastorduk.

Ez egin zalantzarik: lehenago-geroa-go, gobernura ailegatuko dira. Ez egin zalantzarik: ailegatutakoan, gaztelaniaz-ko ordu kopuru minimoa ezarriko dute. Gaur egun, Kataluniako hezkuntza sis-tema dela eta, gaztelaniazko gutxieneko orduen auzia... Konstituzionalean da: za-lantza egiten duzue?

ARGIAko azken artikuluan, Ruben Sánchezek EH Bildu eta meloiak aipatu zituen. Planoa irekita, Jaurlaritzako eta Legebiltzarreko euskaltzaleak hartuko ditut begi-bistan: ez zabaldu meloi hau.

Ez ipini, hezkuntza sisteman ere, eus-kara eztabaida politikoaren erdigunean. Ez ahuldu euskara hezkuntza-sisteman. Ez utzi Konstituzionalari erabakitzen gurean zenbat gaztelania eman behar-ko den. Ez hipotekatu eskola publikoak ikasleak euskalduntzeko duen ahalme-na, bera baita mende honetan euskaldun gehien hezi duen sarea. ●

## Herrira itzultzea



**EVA PEREZ-PONS  
ANDRADE**

**H**errira bueltatzeak erritmoa jaistera ekarri dit. Hiria guztiz utzi gabe, berriro konektatu dut naturarekin, auzoarekin eta nirekin. Duela urte batzuetako Evarekin, ezinbestean. Orduak pasatzen ditut ortua lantzen, ordaindutako lanak eta bestelakoek uzten didaten heinean. Ortua bistan eta auzo erdian egoteak, kanpoko edozein iruzkin jasotzeko prest jartzen zaitu; adin jakin bateko gizona ez izateak, edozein gizon-txoren iruzkin paternalistak jasotzeko prest jartzen zaitu. Desberdina delako. Aitak bere parekoekin elkarrizketak di-tuen bitartean, nik aginduak diren ahol-

kuak jasotzen ditudalako, eta aitari ez zaiolako inoiz auzokidea ortuan sartu bere baimenik gabe bi tomatera lotzera, adibidez. Era berean, auzoko emaku-meei oso eskertuta nago zelan nagoen galdetzeagatik, lana baloratzeagatik eta laguntza eskaintzeagatik.

Herrira itzuli naizen arren, etxetik, ortutik eta aldizkako paseoetatik kanpo ez dut bizitzarik egiten, horretarako hi-rira itzultzen naiz. Duela urte batzuk bai-no askoz erosoago egon arren, oraindik ez dut nire tokia egitea lortu. Erritmoa lasaiagoa da herrietan, baina aldaketak ere motelago datoz. ●

# Robot maitea



**KOLDO ALDALUR  
HIRIGOIEN**  
KAZETARIA

Irakurri berri dut, Kate Darling, Massachusettseko Teknologia Institutuan aritzen den ikertzaileak eskaini duen azken elkarrizketa. Besteak beste, ideia pare batek eman dit zer pentsatua: “Adimen Artifizialaren aroan gaude, di-da batean pasa gaitzke beldurretik maitasunera” eta “laster ez da arraroa izango robot batez maitemintzea”.

Dagoeneko ba omen dira etxeko robotak etxekotzat hartzen dituztenak, eta, ondorioz, bizidunak balira bezala onartzen dituztenak. Orain hamarren bat urte Spike Jonzek zuzendutako *Her* pelikulan planteatzen dira, naturaltasun osoz, antzeko harremanak.

Kate Darlingek harreman horiek sor ditzaketan ondorio legalak, sozialak eta etikoak aztertzen ditu, eta bere burutazioak plazaratzen. Eta nik, nire motzean, nireak atera nahi ditut.

Laster, ustez akatsik izango ez duten “etxekoak” sortzeko aukera izango dugu. Nolakoak nahi ditugun, halakoak izango dira. Fisikoki, eta harremanak izateko erari dagokionean ere bai.

Matxismoz betetako gizarte honetan, gizonezko askok, gure bikotea diseinatzeko aukerak aurrean jarriko

Ez gara, zorionez, robotak. Egunerokoan sortzen zaizkigun zalantzei eta kontraesanei aurre egiteak ematen dio harremanari inperfekzio erakargarria

balizkigute, nolakoa aukeratuko genukeen pentsatzeak erabat beldurtzen nau. Besteen askatasuna norberaren aurkari delako usteak gauza onik ez dakar.

Eta, hezkuntza, eliza, komunikabide, gizarte ilun eta abarren eragin mugatzailerik ez bagenu, gure “etxeko berri” denak izango ote lirateke gaur ditugun bikoteen genero berekoak? Eta, generoa zehaztu beharra al dago harremanak sortzeko? Erabat aske bagina, ez

genuke beste aukera batzuk probatzeko erabakirik hartuko? Bikoteez ari naiz, baina aukeran dozena erdi bat etxeko robot hauetako izanez gero, batez bakarrik maiteminduko ginatke, edo, denak batera maitatzeko modua aurkituko genuke?

Kate Darlingi robotez maiteminduko gabela irakurtzean, pentsatu dut harreman perfekturik ez dudala nahi. Ez gara, zorionez, robotak. Geure eta ondoan ditugunen “akats” txikiek egiten dute interesgarri harremana. Egunerokoan sortzen zaizkigun zalantzei eta kontraesanei aurre egiteak ematen dio harremanari inperfekzio erakargarria.

“Harreman inperfektuak”. Pablo Milánés aritzen da horretaz *El breve espacio en que no estás* abestian. Zatitxo bat etorri zait gogora. Horrelako zerbait dio: “Oraindik ez diot galdetu ‘geratuko zara?’ / Beldur handia diot ‘inoiz ez’ erantzunari / Nahiago dut partekatua izatea, nire bizitza hustea baino / Ez da perfektua, baina hurbiltzen da, besterik gabe, nik amestu nuen hartara”.

Egunen batean robot bat gai bada, harreman aske nahia hain era gozoan azaltzeko, oker nengoela aitortu, eta, agian, beraz maiteminduko naiz. ●



**EUSKAL HERRIKO  
HAZI EKOLOGIKOAK**

Leunda Berri Baserria  
Beizama, Gipuzkoa

**EGIN ZURE  
HAZI ESKAERA!**

[www.aleka.eus](http://www.aleka.eus)

- . BASERRITARRAK SAREAN
- . AGROEKOLOGIA
- . BIOANIZTASUNA
- . BERTAKO EKOIZPENA



 ARGIA Azoka



Prezioa **32 €**

Bidalketa gastuak **5€**.  
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.  
**BIZUM** bidez ordaindu daiteke.

**azoka.argia.eus** (+34) **943 37 15 45**

## MAKROFESTIBALAK

# AGORTU BEHAR DUEN ARTEFAKTUA

Kontrakultura zenaren espirituarekin sortu ziren makrofestibalak, horixe zuen ardatz Woodstock-en fenomenoak, eta zorionez oraindik ere badira antitesiak, baina gehienak kapitalismoaren adierazpen gorena bihurtu dira: kontsumo masiboa sustatzen dute, merkatua maneiatu, espekulatu, langileak prekarizatu, esplotatu eta zaletuei iruzur egiten diete, baita haien osasuna kaltetu ere, erreportajeen ikusiko dugunez. Enpresek antolatzen dituzte, eta kasu askotan inbertsio funtsak daude atzean. Hori guztia eta gehiago, erakunde publikoek finantzatuta. BBK Live-ri buruz hitz egingo dugu, etxean dugun artefaktu handiena delako.

### GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

**J**asangarritasuna izan da aurtengo kartel burua BBK Live jaialdian, hala adierazi dute antolatzaileek hiru eguneko festibala amaitu berritan. Argudio gisa, honela diote titular ostean: “Ingurumenaren aldeko konpromisoan erreferentziazko jaialdia da geurea, musika ingurunearekiko kontzientziarekin uztartuta”. Bide batez, datorren urteko datak jarrita daudela adierazi dute, eta sarrerak erosgai. Detaile adierazgarria, ezin uka.

Jasangarritasunaren bandera berdea jantzi dute makrofestibalek, bereziki, pandemia oste gisa definituriko garaian. Ondo baino hobeto aztertu dute alor hori, besteren artean, Nando Cruz kazetariak eta Jon Urzelai soziologoak. Ez da kasualitatea 2023ko lehen lauhilekoan bi saiakera liburu kaleratu izana makrojaialdi musikalen eta artefaktu horiek beraiekin dakarten dinamiken inguruan: lehenak, *Macrofestivales. El agujero negro de la música* (Makrofes-

tibalak. Musikaren zulo beltza) atera du Península argitaletxearekin, eta bigarrenak *Su festak. Euskal musika jaialdiak XXI. mendean*, Susarekin.

Erregai fosilen aroarekin lotu du Urzelaik makrojaialdien fenomeno garai-kidea: “Garai fosilen kultur adierazpena da; erregai fosilen aroa atzean uzten dugun heinean utzi beharko da jaialdi eredu masibo hau ere, tentsio nabarmenak sortuko direlako”. Makrojaialdien antolatzaileak –gero eta gehiago daude inbertsio funtsen esku– bandera berdearen azpian babesten hasi izanak badu zergatia, ikuspegi berde horrek gero eta garrantzi gehiago izango baitu etorkizuneko gizartearen, eta hobe da azpimarratzea “berdea” zarela ezer ez esatea baino. Edo bada beste hipotesi bat: kontzientzia txarra duzula egiten duzunarekiko eta azpimarratu beharra sentitzen duzula.

Zertan oinarritzen da BBK Live jaialdia aurtengo kartel burua edo titularra “jasangarritasuna” izan dela azpimarratzeko? Ez dago ikerketa sakonik egin beharrik, haiek ematen baitituzte argudioak. Bat: 3.000 pertsona oinez igo dira Kobetamendira. Bi: margolan edo antzerako koadro bat jarri dute jaialdian, “kontzientziazioa” egiteko. Hiru: oholtzaren inguruan hostoak diruditen –edo diren– lona berdeak jarri dituzte.



Eta lau: sarrera bakoitzeko hiru euro Balmasedan eta inguruetan izandako suteen kalteen erreparaziora bideratuko dituztela –idea bat egiteko: hiru eguneko abonua 200 euro balio zituen–.

“Oso ondo daude gauza horiek, zintzoki esanda, ondo dago. Baina uste dut aurrean daukagun erronka kolosal horri horrelako txikikeriekin erantzutea ez dela serioa”, adierazi dio Urzelaik ARGIAri. Areago, neurri horiek ez dira aintzat hartzekoak bere iritziz. Bide beretik hitz egiten du Cruzek aipaturiko liburuan, bereziki azken kapituluan, “zaborra” deiturikoan, eta lotura zuzena egiten dio turismoari, jaialdian sortzen diren zabor tona horiek aipatzeaz gain.

Izan ere, makrojaialdiak jasangarri nola egin aztertu duten ikerketa guztiek diote arazoa jendearen garraioa dela, ereduak berak eskatzen duelako atzerriko jendea erakartzea, kulturaren kontsumo garaikidea hertsiki loturik baitago turismoarekin. Antolatzaileek, gainera, hauspoa ematen

diote atzerritarren presentziari, galdetu bestela BBK Live-ri: lautik bat zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoakoa pasa berri den edizioan –“ere” esan behar-ko genuke, kurioski, urtero portzentaia bera baita–.

Bide batez, kopuruez hitz eginda, antolatzaileek esan dute 120.000 parte hartzaile egon direlako Kobetamendin. Baina urterokoa da eta eredu bera duten jaialdi guztietan gertatzen da: bertan hiru egunak pasatzen dituen bisitaria hiru aldiz zenbatzen da. Suminduta hitz egiten du horren inguruan Urzelaik: “Ez da hain zaila kontatzea, gezurra esaten dute, jakin badakite, eta ulergaitza dena da hedabideek horri eustea; ez dakit nola permititu daitekeen halakorik”.

### GUGGENHEIM OSTEKO AROA

Hiri eredia eta musika jaialdien esplorazioa bat eginda datoz mendearen parte honetan, eta asko dira gaiaz urtetan hitz egin dutenak. Xabier Gantzarainek bazioen *Zuloa* (Elkar, 2018) liburuko pasarte batean, salgaia besterik bihurtu ez den herri baten parte dela Euskal Herria, eta nazioarteko erakuslehoan *Basque* delako marka kokatzea beste asmorik ez dutela euskal instituzioek. Aspalditik datorren joera da, Guggenheimek markatu zuena nolabait, eta marko berean ulertu behar da Donostia-

ren 2016ko Europako Kultur hiriburutzatza ere. Ez da, jakina, gurean gertatzen den kontua soilik; nazioarteko hiriak lehian ari dira haien izenak mapan kokatzeko.

Kultura ulertzeko “modu jakin bat” dela dio Urzelaik, bereziki etxera begira hitz eginda: “Dena da jendea erakartzea, turismoaren eta ostalaritzaren menpe dagoen eredia”. Eta hori pentsatzea ez da oinarririk gabeko burutazioa: Bilbo-ko alkate Juan Mari Aburtok azken hauteskunde kanpainan makina bider esana du ekitaldi erraldoiak nahi dituela jendea erakartzeko, turismoa sustatzeko.

Frantziako Tourra ekartzeak ere logika bera jarraitzen du, baita EiTbren eta Kutxabanken logoak dituzten ikurrinak atera eta aurkezpen ekitaldian harri-jasotzaileen eta aizkolarien emanaldia antolatzea ere, delako *basque* identitatearen kontua hauspotzea delako erakunde handien helburua. Urzelaik uste du modu oso akritikoan landu dela Tourraren gaia, eta iritzi kritiko oso gutxi entzun direla: “Paradigma horren sustatzaile direnek ikurrina horiek banatzen badizkizute, igual ja ez da hain ekintza transgresorea hori egitea”.

Festibalen kasuan, atzerabegiratua egin du Urzelaik bere liburuan, eta jatorrira jo du, hasieretako festibalen garaietara, izan ere, jatorriz aura bat badute halako jaialdiek. Baina orduko eta egun-





Idealista-k deskantsurako postua jarri zuen eta Vueling-ek informazio gunea. Aizkolari batek auto bat erditik hautsi zuen, eta horrela eman zioten hasiera hiru eguneko jaialdiari.



BBK LIVE

go aldarri eta afixak alderatzea besterik ez dago paradigma aldaketaz ohartzeko. AEBetako Woodstock izan zen mito horretan bazeuden, esaterako, ikasle mugimendu, sindikatu eta gizarte eragileen *stand* modukoak, panfleto iraultzaileak; Mairuelegorretako jaialdia ere, Zigoitian egiten zena, halako aldarrikapenen plaza bihurtu zen duela 50-60 urte.

Erreparatu orain pasa berri den BBK Live jaialdiari: Idealista-k, etxebizitzaren merkatu espekulatuaren eragile nagusienetakoa denak, bere postutxoak jarri du Kobetamendin, baita Vueling hegazkin konpainiak ere. Hegaldiak aipatuta, SkyScanner-ek ere ageriko publizitatea egiten dio bere foroetan, bereziki ingelesez. Hegazkin konpainiak atzean egote hutsak argi erakusten du atzerriko turismoa sustatu nahi dela, eta horri lotuta, bistakoa den anekdota bat: Urzelaik liburuaren azaltzen duenez, festivalaren iraganeko edizioen batean merkeagoa zen abonua Londresen erostea Euskal Herrian erostea baino. Abonu horiek *pack* delakoa ere bazekarten, eta horiek funtzionatzen jarraitzen dute oraindik: hiru eguneko musika jaialdia Kobetamendin, surf ikastaroa Zarautzen eta joan-etorria Iruñera, Sanferminetara. Sanferminen bueltako egunetan antolatzeari ez da kasualitate hutsa, aitortua da Bilboko Udaleko ordezkarien partetik.

“Atzeritarrak erakartzeko artefaktu bihurtu dira”, dio Urzelaik. Transformazio oso agerikoa izan da: “Jatorrian asmo eraldatzaile eta kasu askotan iraultzaileak zituen artefaktua, bilakatu da asmo horien kontra datorren zerbait, asmo horiek zapuztera datorrena, oztopatza”.

BBK Live-n atzean dagoen Last Tour enpresa aski ezaguna da Hego Euskal Herrian, eredu bereko hainbat makroekintza antolatzen baititu. Kontuan hartu beharreko agentea da, ez bairik gabe. Besteak beste, Donostia Festibala antolatu dute orain arte, Azkena Rock jaialdia –hor hasi zen dena, hor egin zuten jauzia–, Santaspascuas kudeatzen dute Iruñean, BIME, Bilboko La Merced eta BilboRock-en sustatzaile ere badira, Bilbon areto bat irekitzekotan dira jatetxe zerbitzuarekin, eta horrez gain, editorial eta disko zigilu bana daukate.

Euskal Herriko instituzioekin duten harremana “esanguratsua” dela dio Urzelaik, enpresa pribatuak “beste inork ez dituen erraztasun guztiak” jasotzen dituelako: “Last Tour-ekoek antolatzen duten Herrian eta Hirian jaialdi txikia-



goekin gertatu dena oso agerikoa da: edozein herriko auzotan antolatu dezakete haien egitasmoa erraztasun guztiekin. Kolektiboak eta bertako eragileak ez zaie uzten halako ezer antolatzen – itsaso alboan, ondare naturalean edota baldintza jakin batzuetan –, eta etortzen da enpresa pribatu bat, montatzen du berea, instituzioek finantzatuta, eta hemen ez da ezer gertatzen".

Doan eskaintzen dira sarri, gainera, halako ekitaldiak. BIMERen kasua agerikoa da, debaldekoak baitira kontzertuak, eta horren atzean dagoen antolakuntza –gastua edo inbertsioa– ez da nolana hikoia. Urzelai: "Nork ordaintzen du? BIMERen kasuan, Etxepare Institutuak, Nafarroako Gobernuaren Turismo Sailak... Eta musika taldeei bakoitzak ordaintzen dio. Hau da, Etxeparek ordain diezaiokete bati, eta beste bati Nafarroako Gobernuak. Zenbat? Erakunde bakoitzaren arabera. Ez dagoela irizpide bateraturik, alegia".

Jendea kezka eragin beharko liokeen auzia dela uste du Urzelai: "Erakundeak eta Last Tour, bistako engranajea da, elkar ongi eutsita daude eta, haien irizpideetan, ongi funtzionatzen dute. Ez dakigu oso ondo non amaitzen den bi horien arteko harremana". Ezagun da Last Tour-eko arduradunak 2019ko hauteskundeetan botoa eskatu zuela EAJrentzat.

## *BBK Live-ren edizioaren batean merkeagoa zen Londresen erostea abonua Euskal Herrian baino*

### **INSTITUZIOEN PARTE HARTZEA**

Erakunde publikoen laguntzarik gabe, makrojaialdiek ez dute sostengurik. Zer esanik ez Euskal Herrian antolatzen direnek, Espainiako Estatuko jaialdi "handien" aldean gehiago jasotzen dute-eta. BBK Livek milioi t'erdiko laguntzak jasotzen ditu urtero, gutxi gorabehera, aurrekontu guztiaren %15-20 inguru; Azkena Rock jaialdian ere, bost eurotik bat erakunde publikoek jartzen dute. Zuzeneko dirua da hori, asko baita zeharka jartzen dena: autobus zerbitzu bereziak, munizipalen lanaldi gehigarriak, garbitzaileen ezohiko lana... Horiek denak, BBK Liven kasuan, Bilboko Udalak jartzen ditu.

Aipatu dugu lehen: inbertsio funtsek muturra sartu dute musika jaialdi handietan. Esaterako, halako putre batek erosi berri du Galizian egiten den Resurrection Fest jaialdi ezagunaren enpresa, zeina Viña Rock eta Tsunami Xixón festivalaren jabe ere baden. Galiziakoak eta Asturiaskoak metala, punka, post-punka eta hardcorea dute oinarri; aintzat hartzekoak dira genero horiek historikoki izan duten lotura politikoa, askotan anarkismotik ere gertu kokatuta.

Adierazgarria da Xixóneko jaialdiarekin gertatu dena: Vox sartu da udal gobernuan –festa gaien ardura du– eta harekin bildu dira antolatzaileak, beharrezko dituzten diruak eskuratzeko. Alegia, Vox-ek kudeatzen duen sailak finantzatzeko duela funts putre baten menpe dagoen punk festivala. Bi musika taldek esan dute ez dutela bertan joko, eta polemika apaltzen eta atzeko atletik bideratzen ahalegindu dira zalaparta sortzea komeni ez zaien eragileak.

### **ZALEEN OSASUNA: ANTSIETATEA**

Esperientzia ahaztezina izango da guztia, oso *cool* dena, baina komeni da oinak lurrean jartzea. Izan ere, zaleen osasunarekin negozioa egiten da, zaleak eurak jabetu gabe sarri. Dena esaten du muturreko adibide honek: iaz, Bartzelonako Primavera Sound jaialdi entzutetsuan egon zen bisitari batek bere mugikorre-

## MAD COOL

Madril kanpoaldean, Espainiako auzorik txiroenetakoa den Villaverde barrutian egiten da, etxebizitzetatik 300 metro eskasera. "Kultur Hiria" eraiki du bertan Madrilgo Udalak, egonkorra izango den zerbait, Mad Cool-etik harago, 100.000 lagun inguru elkartzeko moduko espazioa. Hilabete bakarrean zazpi emanaldi handi dituzte programaturik.

Garraio publikoaren eskaintza murrizta da, eta egun konkretuetan soilik handitzen dute. Taxi eta Uber moduko autoez josi ohi zaizkie kaleak halako egunetan. Eta zarata: 100.000 pertsona, asko turistak, halako auzo batean eta festa giro betean edukitzea, bizikideratzarako eta auzokideen deskantsurako oso kaltegarria dela salatu dute.



Antzerako kexak plazaratu dituzte Bilboko Kobetamendi inguruko bizilagunek: garraioa, irisgarritasun eskasa eta zarata.





## Kapitalismoa barruraino sartu da festibaletan

Nando Cruz (Bartzelona, 1968) kultur kazetaria da, musikan eta musika jaialdietan espezializatua, eta kultur ekintza alternatiboen kronikagile nabarmendua. Aurten, *Macrofestivales. El agujero negro de la música* (Makrofestibalak. Musikaren zulo beltza) liburua kaleratu du; kontsumo eredu masiboen ikuspegi kritikoa du adierazgarri.

 **ELOI LATORRE**  **VICTOR SERRI**

**Directa**

Elkarrizketa hau *Directa*-k argitaratu du, eta CC BY-SA lizentziari esker ekarri dugu.

**Zer da eta zer ez da makrofestibala? Zerk bereizten ditu kulturalki osasuntsua den ekimen bat eta “musikaren zulo beltza” gisa definitzen duzun hori?**

Muga, esango nuke, topaketaren esperientzia erabat gozatzea ezinezkoa den une horretan hasten da. Bi sintoma argi daude. Batetik, pantailen presentzia dago: antolatzaileak esaten ari zaizkizu saldu dizun sarrera horrekin ezin dizula ziurtatu musikaz gozatu ahalko duzunik, hau da, kasu batzuetan ezingo duzula oholtza ikusi ere egin, ezta musika gertu sentitu ere. Bestetik, gehiegizko eskaintza, ekintzak gainjartzea: taldeen zerrenda hain da zabala, errealitatea dela ezin duzula eskaintzaren bi herenera bertaratu, hautaketa egin behar duzula. Kartel handi horrengatik ordaindu duzu eta hiru kontzertutik bat ikusi ahal duzu. Iruzurra da, lapurreta.

**Liburuan aipatzen duzu, hain zuzen, gaineskaintzaren saturazioak antsietatea sortzen duela jendearengan. Ez dakit zeure buruari galdetu ote diozun zergatik jarraitzen duten eredu hori sustatzen, argi baitago publikoarentzat arazotsua dela.**

Promotoreek badakite hori dela denborarik laburrenean diru gehien ira-

bazteko modua. Jakin badakite ikuslearentzat esplotazio hori ez dela esperientziarik onena, ezta artistentzat ere ordu erdi eskaseko kontzertuak eskaintzea, baina errentagarriena zaie. Geroz eta talde gehiago ekarri, orduan eta garestiago jar ditzakete sarrerak. Taldeak bildu, bildu, bildu... Ahalik eta jende gehien erakartzeko. Hazkundera amaigabeko gaia da. Kapitalismoa jaialdien munduan sartu da, barruraino sartu ere, eta promotoreek hazten

jarraitu behar dute, pastela beste batek eramanez ez dezan.

**Urteak dira jaialdien “burbuilaz” hitz egiten dela, hazi eta hazi, jasan ezin bihur daitekeen eredu delakoan. Gerta daiteke halakorik? Birdimentsionatzeko ideia, guztia murriztekoa, txikitzekoa, pandemian zehar kantilena modukoa zen, baina behin garai hura pasatu dugula, bistan geratu da hori ez zela ideia besterik, ez zegoela**





benetako intentzio eta asmorik. Pandemiaren ostean berreskuratu nahi izan da pandemiaren galdua.

Uste dut jendea nekatzen eta nazkatzen ari dela jaialdi mota jakin batzuekin. Jendea gogaitu da beti talde berberak ikusteaz, eta beti jaialdi berrean dagoen sententzia edukitzeaz. Eredua bera neketsu bihurtzen hasi da, baina ez dakit burbuila lehertzera helduko den.

Tankera are handiagoa hartzen jarraituko dute Espainiako Estatuko jaialdiek: nazioarteko inbertitzaileak sartzen ari dira indar handiagoz, Espainiako Estatuari ari da zirkuitu handien herrialde bihurtzen, eta hori egin badute, funtzionatzen jarraituko duela pentsa dezakegu.

### **Zergatik hautatu dute Espainia? Eguraldiak eta klimak eragina du?**

1990eko hamarkadan dezente joaten nintzen Ingalaterrako jaialdi handietara. Hiru egun irauten bazuten, euria egiten zuen bi egunetan. Benicàssim (Valentzia) egiten den FIB jaialdiaren sortzaileak Ingalaterrako jaialdi horietara joaten ziren, eta esana dute han sortu zitzaiela ideia. Klimak lagundu du jaialdiak eta jendea erakartzen, baina uste dut laster jaialdien kontra etorriko dela larrialdi klimatikoa, geuk ere jasan ezin ditugun tenperaturak gero eta ohikoagoak izango baitira.

### **Duela urte batzuk, makrofestibalek ingurumen jasagarritasunaren aldeko konpromisoa adierazi zuten adierazpen publiko batean. Badu sinesgarritasunik?**

Zenbat eta gehiago hitz egin jasagarritasunaz, horrek esan nahi du orduan eta kontzientzia txarragoa dute. Izan ere, makrofestibala, definizioz, jasagarritasunaren antitesia da, errentagarria izateko pertsonen fluxu handiak sortu behar dituen jarduerak baita, eta horrek arrasto ekologiko ikaragarria uzten du. Eszenatokietan LED bonbillak jarrita ere, kaltetzen denaren %75 publikoak eragiten du. Jaialdi bat antolatzen duzunean eta esaten duzunean "AEBetako artista handi bat etortzea nahi dut eta ez dezala Europako beste tokietan jo", jende-fluxuak eragiten ari zara, Europako jendeari hona etortzeko esaten. Horixe bera da jaialdi guztien logika: eskusibotasuna.

ko osasun aplikazioko kaptura bat igo zuen sareetara, "ordubete eta hamazazpi minutu deskantsatu dituzu ohean, eta 36.000 pausu egin egun hauetan".

Frogatuta dago gehiegizko neke fisikoak kalteak eragiten dizkiola osasun mentalari, zentzuzko erabakiak hartzeko edota emozioak garatzeko gaitasunari. Horretan jarri du azpimarra Nando Cruz kazetariak. "Musikariek eta zaratariek gabeko minutuak oxigenoa dira norbere buruarentzat zein musikarentzat berarentzat". Jakina, antsietatea eragiten du horrek, eta osasun arazoak sor daitezke bereziki maratoiaren hurrengo egunetan. Eredu masiboaren beraren ezaugarrietako bat da, ordea: kasurik onenetan, arratsaldeko laurretan hasi eta goizeko seiak arte irauten duten egun luzetako musika emanaldiak dira, kontzertu bat amaitu eta segundo eskasera bestea hasi ohi da, atsedenek gabe.

Antsietateaz eta emozioez hitz eginda, doktore tesi bat aipatu behar da, Jordi Oliva kultur kudeatzailearena, 2021ekoa. BBK Live eta Donostiako Musika Hamabostaldia alderatu zituen, hirurehun bat bisitariri inkesta pasatuta, karga emozionalari buruzkoa. Emaitzarik positiboan Musika Hamabostaldian jaso zituen, eragin positiboa denboran luzeagoa zelako, eta egun batean kontzertu bat, ganoraz, eserita eta deskantsaturik ikustea dezente hobea delako ordubete irauten ere ez duten zortzi emanaldi bata bestearen atzetik, zutik, eguzkitan eta gutxi deskantsaturik ikustea baino. BBK Liveko bisitariak argi zioten tentsioa, ilara luzeak, nekea, aglomerazioa eta masifikazioa etsigarriak zirela, baina horien gainetik itzul zitezkeela.

Horrez gain, musika eta arte diziplina bere horretan "bizitzeko", gozatzeko, tokirik okerrenak ere badira festibal handiak Cruz eta Urzelai adituen iritziz. Batik bat, asko, ordu erdi eskasako kontzertu direlako. "Agian denborarekin ikusten zoazen kontu bat da, baina behin argi ikusita, nazka hartzen zaio", dio Cruzek liburuan. Agian, noizbait, lehertuko du burbuilak. ●

## LAN BALDINTZAK: PREKARIOA BEHAR ZUEN IZAN

**K**apitalismoaren adierazpen gorenaren helburu horiek bete zezeko funtsezko elementua falta da: lan indarraren esplotazioa.

Datuak ez dira argiak eta bista-koa da zergatia. Iaz, hainbat hedabide publiko egindako zifren arabera, BBK Live-ren bueltan lau mila langile inguru aritu ziren lanean.

**Eszenatokiak:** Presaka muntatu ohi dira, behar baino langile gutxiagorekin eta eguzkipean. Oholtza erori zen iaz Espainiako Estatuko bi lekutan: Valentzian, Medusa festibalean, pertsona bat hil eta hogeiki ikusle zauritu ziren; eta Compostelan, O Son Do Camiño jaialdiaren muntaketan, hogeiki langile harrapatu zituen azpian.

**Ostalaritza:** Zortzi orduko lanaldia sinatzen dute kontratuan, baina hamasei ordu egitera ere iristen dira. Eragin Bilbo mugimenduak eta LAB sindikatuak jakinarazi zuten, ordua lau euro inguru ordaindu zieten, batzuei gutxiago, azpikontratutako enpresaren arabera.

**Stand-ak:** Festibalaren babesle ziren *stand* komertzialetan egin zuen lan Xabierrek, *El Diario*-k jaso zituen bere hitzak. Egunean zortzi orduko lanaldia sinatu zuen; hiru egunetan 45 ordu egin zituen lan. Bost euro ordaindu zioten ordua.

**Sarrera-irteerak:** Eguzkipean, itzalkin baten azpian ahal bazen, hamabi orduko lanaldiak egiten zituzten. Jende trafikoa txikia bazegoen, garbiketaren edo segurtasunaren lagundu behar izaten zuten.

**Segurtasuna:** *El Diario*-k jaso zuenez, pertsona batek 49 ordu egin zituen lan hiru egunetan. Alegia, egunean hamasei ordu baino gehiago. Behin jaialdia amaitutakoan sinatu zuen kontratua: dokumentuaren arabera, lau ordu egin zituen lan; gainontzeko 45ak gutun azal batean jaso zituen beltzean. Ordua bost euro.



**Eta Sánchez berriz  
bizirik atera zen...**







## ERREAKZIOAK

“ ”

Hauteskunde aurreratuak deitu nituen, herrialde bezala zein norabide hartu erabaki behar genuela uste nuelako: aurrerakoia edo atzerakoia. Espainia argia izan da: bloke atzerakoiak porrot egin du. Askoz gehiago gara Espainiak aurrera egiten jarrai dezan nahi dugunok, eta hala izaten jarraituko du.

**Pedro Sánchez / PSOE**

“ ”

Gu Gobernuan ez jartzeak, alderdi bozkatuena izanik, blokeoa ekarriko luke. Hauteskundeak galdu dituen alderdiari, PSOEri, eskatzen diot Espainia ez blokeatzeko. Espainian beti gobernatu du alderdirik bozkatuenak.

**Alberto Núñez Feijóo / PP**

“ ”

Helburu nagusia lortu dugu: Madrilen euskal talde parlamentarioa bermatzea, bost eserleku lortuta. Talde parlamentarioak aukera emango digu Madrilen euskal ahotsa izateko eta Gorte Nagusietan euskal interesak sendo defendatzeko.

**Andoni Ortuzar / EAJ**

### ANALISIA



Besteak beste Junts-ekin negoziatu beharko du PSOEek, gutxienez abstentziora jo dezaten.

# Estatuan blokeoa, berriz?

 **GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA**

**N**agia ematen du, bai. Duela lau urte hauteskundeak errepikatu ziren tronurako bidea nola egin adosteko gai izan ez zirelako politikari profesionalak, eta medioen zein jendearen titular nagusia horixe izan zen orduan: nagia. Oraingoan ere beste hauteskunde batzuetatik zetozen herritarrak eta, aizu, abuztuaren atarian halako kanpaina desatsegina irentsaraztea eta botoa ematera deitzea ez da sarri egiteko eskatu beharreko esfortzua. Hori da bando batekoek pentsatuko dutena, izango dira gehiago ala gutxiago, eta *Borgen* moduko serie politikeroak gustuko dituenak, beste bandoak, oso modu frikian jarraituko ditu datozen asteko negoziaketa eta iritzi-trukaketak.

**Kontuak eta zikinak.** Mahaiaren gainean ere bi bando egongo dira datozen egun eta asteetan: PP-k eta Vox-ek osatzen dutena bata, Nafarroako eta Kanarietako alderdi erregionalisten eserleku banarekin lagunduta; eta bes-

tea, *Franskestein* gisa bautizatu zuten gobernu, PSOEren gidaritzapean eta haren ezkerreko alderdiek tarteka-tarteka babestu dutena. Espero daiteke Sumar-ek gobernu koalizioa eskainiko diola PSOEri, baina horrekin ez da aski izango, ezta gutxiago ere. Kontuak atera behar dira: EAJren babes lortu beharko du lehenik, hain zaila izan behar ez lukeena, eta BNG-rena ere bai. Baina horrez gain, EH Bildu eta ERC-rekin ere hitz egin beharko du Pedro Sánchezek haien botoak bere zerbitzura jartzeko, aurreko inbestidura saioan abstentziora jo bazuten ere. Gertutik jarraitu beharko dira negoziazio horiek, alderdi independentisten eskakizunak indartu daitezkeelako eta negoziazioa oztopatu, edo eskakizun arinekin Sánchez babestu, alternatiba egokirik aurkitu ezean.

Behin bi alderdi independentisten tramu hori pasatuta, txupina jaurtitzen hasi aurretik, nahitaez eman beharreko abisu bat: gobernu “aurrerakoi” berriaren zenbakiek ez lukete eman-

go, ez behintzat gobernua gehiengoan osatzeko. Lau eserlektutara leudeke. Ezinbestean beraz, Sánchezek, balizko inbestidura saioan, aipaturiko akordio eta babesez gain, Junts-ek abstentziora jotzea beharrezkoa izango du. Ezezkoa bozkatuko balu, joan den legegintzaldi osoan egin bezala, blokeo egoeran geratuko litzateke Espainiako parlamentarismoa.

Alderdien erreakzio berantiarren artean, lehenbizikoetakoa hitz egiten Junts izan da. Hitz gakoak hauexek, aurre-negoziaketa fase bete-betekoak: “Ez diogu gobernuari egonkortasunik emango hutsaren truk”.

**Zer egingo du erregeak?** Hedabide espainiarrak kontsultatuta, horixe da kezka handienetako bat. Garai batean bezala, erregeak presidentegai bat gonbidatzen du etxera, kafea hartzen dute eta hari proposatzen dio gobernu osatzeko aukera aztertu eta alderdiekin negoziatzen jartzeko mandaturia obeditzea. Ez du lan erraza Wimbledon-eko finalean agertu eta hedabide britaniarrek jator eta erakargarritzat definitu zuten Espainiako Erresumako erregeak. Nori deituko dio? Dei bakarra egingo du? Lehen indarra izan den alderdiari ez dio eskainiko?

**Europara begiratua.** Wimbledon aipatu dugu, baina justu Erresuma Batua ez, Europako Batasunetik irten zelako, baina komenigarria litzateke Europa mailako ikusmoldea ere kontutan hartzea Espainiako hauteskundeen emaitzak aztertzeko. Urtebete pasatxoan, European, oro har, alderdi tradizionalistek indarra berreskuratu eta gobernuak osatu dituzte are eskuinagokoak diren alderdiekin, izan parlamentuan akordio puntualak eginda (Suedia kasu), izan gobernu koalizioen formula baliatuta (Italian, Finlandian) edota izan eskuin tradizionalak garaipean erraza lortuta (Grezia), besteak beste. Azken urte eta erdiko joera dela nabarmendu izan dute analista politikoek, zerbait orokortua, eta baliteke Bruselako agintariak Madrileren begira egon izana igande gauean, gerta zitekeenez kezkatu, besteren artean, sinbolikoki bada ere, aurtengo urtearen bigarren sei hilekoan Espainiak baitu Europako Kontseiluaren lehen-dakaritza jasotzeko ardura.

Zerbaiten adierazle izan daitekeen ala ez, horra galdera: tregoa apur bat ematen diete emaitzek Europari?

**Inkestak.** Berrikusi beharko litzatekeen kontuak. Mendebaldeko herrietan ez da Espainiako Estatuan bezalako inkesta jario amaiezirik egin. Aste bakarrean bi, hiru eta lau publikatzerara ere iristen dira galdeketaren enpresak, eta astakeriaren bat edo beste ikusi da han hemenka. Hauteskundeak egin baino astebete lehenago PPren gehiengo absolutua “gertu” egon zitekeela esatera ausartu ziren batzuk, eta hori gertatzen ez bazen, Vox-i eskua emanda 176ra helduko zirela ziur. Eta halakorik ez, beno, distantzia oso gutxira geratu. Ahoa ongi berotzea deitzen zaio horri.

Beste aldean, berriz, mundutik aparte bizi den batek soilik egin ditzakeen inkestak argitaratu dira. CIS etxearena, beste behin, izugarria da. Diru publikotik hamalau milioi euro kobratu dituen Tejanos jaunarena ere berrikusi beharko litzatekeen jarduna da: udal eta foru hauteskundeetan ez zuen inola ere igarri PPren igoera, areago, PSOEren garaipen zabala espero zuen; eta Gorteetarako hauteskundeetan ere ikusi da: PSOEri garaipena eman dion inkesta etxe bakarra izan da CIS. Eta ez, ez du irabazi.

**Otsoaren beldurra.** Boto emai-leak “otsoa datorrenaren beldurra” zabaldua mobilizatu ditu PSOEek urteaz eginiko maniobran. Balantza PPren aldera zegoela zirudien, baina bi hilabetetan ez dira *sanchismoa* menderatzeko adina hondar ale beste aldera igaro.

Otsoa, baina, ez da leku guztietan bera. ERC-ren otsoa, esaterako, PSC da, eta kuriozoso da. Espainiako Gobernuari eta PSOEri hainbat lege aurrera eramaten lagundu dio, nahiz kritikoak ere izan diren, lan erreformaren legean adibidez. Madrilen hori, baina Bartzelonan mokokadaka aritzen dira ERCk gobernatzen duen Generalitatean. Eta orain, hara non, kataluniarrek ERC zigortu dute PSOEri babes emateagatik, eta trukean, sozialista kataluniarrak saritu.

Otsoak baditu beste hamaika izen. EAJren kasuan, akaso, EH Bildu izango da. Mugitzen jakin behar da. ●

## ERREAKZIOAK

“ ”

Gure esku badago, ez dira egongo PP eta VOX Gobernu Espainolean, gugatik bada argi daukagu badagoela alternatiba beste lau urterako Espainiako Gobernuan. Eta hori ekarpen handia da antifaxismoarentzat. Jende arduratsua gara, eta ez dugu hutsik egingo.

**Arnaldo Otegi / EH Bildu**

“ ”

Pedro Sánchez izan daiteke inbestitua komunismoaren, separatismo golpistaren eta terrorismoaren babesarekin; orain xantaia egiteko askoz gaitasun handiagoa dute aurreko legegintzaldian baino.

**Santiago Abascal / VOX**

“ ”

Gidoia aldatu dugu, demokrazia indartuta aterada gaur. Kanpainen esan dizuegu Espainian jendea oso arduratuta zegoela; lasaiago egingo dute lo gaur. Ez gara distraitu, bihartik aurrera hobeto gobernatuko dugu.

**Yolanda Díaz / Sumar**

# Itsasoan zokoratuta

 XABIER LETONA

**O**so leku gutxitan irabazi ditu PSOEek hauteskundeak estatuan, eta horien artean dago Hego Euskal Herria. Lurreldeka, gainera, Araban eta Nafarroan ere bai. Baina diputatu gehikuntza Nafarroa eta Gipuzkoatik etorri zaio, horietan eserleku bana irabazi ditu eta, bietan Sumarren kaltetan. Boto sarekada handiena Bizkaian jaso du: 35.000 bat boto.

Bigarren irabazle handia EH Bildu izan da: udal eta foru hauteskundeetako haize boladari eutsi dio, diputatu bat irabazi eta 40.000 bototik gora gehiago batu. Aurkako abagunean dago EAJ, azken hauteskundeetako joera txarraren lorratzean, bi eserleku galdu baititu, non eta bere erresuma nagusian, Bizkaian. Berriz ere 100.000tik gora galdu ditu, eta horietako asko PPra joan zaizkio.

Jeltzaleekin partekatzen dituen botoak berreskuratu ditu PPk eta azken urteetako emaitzarik txukunena lortu du. Beren botoak zein hauteskundetan dantzatzen dituzten ondo bereizten dute eskuineko milaka euskal herritarrek eta, keinukarien gisan, orain jeltzale orain popular, dozenaka mila boto joan-etorrian dituzte bi indarrek. Askoren erakusgarri da hori.

Pozik Carlos Iturgaitz eta kabitu ezinean Sergio Sayas nafar eskuindar eta UPNko diputatu ohia. Nafarroako eserlekua lortzeaz gain, PP UPNren aurretik jarri baita. Aurkako egoeran dago UPN, bere historiako emaitzarik txarre-na lortuta. Izan ere, 1979tik aurrera ez baita popularrengatik bereizita inoiz joan. Javier Esparzak arrisku handia hartu du oraingoan eta larri behar du, akaso Sayas eta Carlos García Adanoren aparretan itotzekotan. Hala ere, PPk eta UPNk bien artean Navarra Sumak duela lau urte baino 7.000 boto gehiago lortu dute.

Eskuinaren banaketaren ondorioz, halaber, zerbait historikoa gertatu da erresuma zaharrean: EH Bildu biga-



ren indar geratu da, lurreldean inoizko emaitza onenak lortuta. Besteak beste, botoak jaso ditu botoak atzera bidean jarraitzen duen Geroa Baitik eta baita Sumarretik ere. Azken honek ia 70.000 boto galdu ditu Hegoaldean, eta osterera ere argi ikusten da ez duela Ahal Duguk beste batzen. PSEk eta EH Bilduk etekin argia ateratzen dute egoera horretatik.

Geroa Bai dagokionez, bere buruzagi Uxue Barkos Madrilgo diputatu ezagun bihurtu zen bi legealditan zehar Nafarroa Bai koalizioaren izenean, eta jakina, NaBai ez da Geroa Bai, inondik inora, baina Barkosek 62.000 boto lortu zituen eta Geroa Bai orain 9.700. 2019an baino 3.000 gutxiago. Joera oso arriskutsua, zalantzarik gabe, esparru horretan lehiatzea merezi dien pentsarazteraino era bai akaso.

Eta horrek guztiak nola eragingo du Hego Euskal Herrian epe laburrean? Nafarroako Gobernu abuztuan eratu da, berriz ere EH Bilduren abstentzioari esker. Orain Madrilgo zangoztraba gu-

txiagorekin Nafarroan, Madrilen ere Sánchezek haren beharra du eta. Eta datorren urtean, halaber, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundearen txanda izango da. Udal hauteskundeetako itunei begiratuta, pentsa liteke jeltzale eta sozialisten arteko itunak dena lotuta eta ondo lotuta duela. Molde horretan PSEk eta PPk jeltzaleak dituzten bezain lotuta. Eta, zalantzarik ez, gobernu aukerarik gabe bada ere, EH Bildu saiatuko da horri etekinik ateratzen.


Beste hainbatetan legez, Espainiako hauteskunde orokorretan, estatuko lehiak indar estatalistak jarri ditu buru Hego Euskal Herrian ere, salbuespen txiki batekin, Bizkaia eta Gipuzkoa, estatuko bipartidismo itogarritik aldentzen diren lurrelde bakarrak. Eta hala ere, eustekotan, periferiak eutsiko dio berriz ere PSOEren eta Sumarren balizko gobernuari, berriz ere independentismoaren esku baitago muturreko eskuin espainiarraren aurkako harresi instituzionala. ●




**DATUTAN**

## ESPAINIAKO HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK


**Bizkaia**


	2023	2019	
EAJ	163.508	221.171	2 (=)
PSE-EE	156.639	119.917	2 (=)
EH BILDU	125.418	94.377	2 (+1)
PP	69.771	55.130	1 (=)
SUMAR*	66.189	105.021	1 (=)
VOX	15.760	15.094	0
PACMA	2.676	3.745	0
CIUDADANOS**	-	6.829	-


**Araba**


	2023	2019	
PSE-EE	46.476	37.325	1 (=)
EH BILDU	32.844	27.364	1 (=)
PP	29.985	25.318	1 (+1)
EAJ	27.936	40.127	1 (=)
SUMAR*	21.407	27.992	0 (-1)
VOX	6.500	6.423	0
PACMA	760	1.151	0
CIUDADANOS**	-	2.504	-

**Gipuzkoa**


	2023	2019	
EH BILDU	116.414	98.391	2 (=)
PSE-EE	86.711	68.663	2 (+1)
EAJ	84.338	116.125	2 (=)
SUMAR*	39.435	56.787	0 (-1)
PP	32.033	23.373	0
VOX	7.683	7.142	0
PACMA	1.501	2.024	0
CIUDADANOS**	-	3.725	-

**Nafarroa**


	2023	2019	
PSN	92.798	83.242	2 (+1)
EH BILDU	58.686	56.387	1 (=)
PP***	56.483	98.448	1 (-1)
UPN***	51.764	98.448	1 (-1)
SUMAR*	43.564	55.191	0 (-1)
VOX	19.213	18.656	0
GEROA BAI	9.839	12.622	0
PACMA	1.489	2.203	0

# %67,2

## PARTE-HARTZEA


Parte-hartzea %67,2koa izan da Hego Euskal Herrian, 2019ko azaroko hauteskundeetan baino puntu bat gehiago. Espainiako Estatuan berriz, 2019ko bozekin alderatuta lau puntu igo da parte-hartzea, posta bidezko botoen errekorrak bulztatuta: %70,18koa izan da parte-hartzea Espainiako Estatuan.


# 135.407

## PSE/PSN

PSOEek emaitza oso onak lortu ditu Hego Euskal Herrian eta hauteskundeak irabazi ditu bertan. Lau hiriburuetan lehenengo indarra izatea lortu du. Bilbon, botoen %26,45 bildu du PSEk (46.352 boto); Donostian, botoen %25 (25.535 boto); Gasteizen, %29,78 (37.230 boto); eta Iruñean, PSNk botoen %24,7 lortu du (26.290 boto). Lau hiriburuetako bo- toak batuta, 135.407 boto.

## ESPAINIAKO DIPUTATUEN KONGRESUA



	2023	2019
PP	136	88 (+48)
PSOE	122	120 (+2)
VOX	33	52 (-19)
SUMAR*	31	38 (-7)
ERC	7	13 (-6)
JUNTS	7	8 (-1)
EH BILDU	6	5 (+1)
EAJ	5	6 (-1)
BNG	1	1 (=)
CCA	1	2 (-1)
UPN***	1	2 (-1)

# 0

## VOX

Zero eserleku lortu ditu VOXek Hego Euskal Herrian, 2019an bezalaxe. Espainiako Estatuan, beherakada handia izan du: Espainiako parlamentuan 52 eserleku eskuratu zituen duela lau urte, eta oraingoan 33 lortu ditu, 19 gutxiago.

\* Elkarrekin-Podemos, IU, Equo, Más País, Batzarre (Nafarroan)  
 \*\*2023an ez da aurkeztu  
 \*\*\* 2019an Navarra Suma (UPN, PP eta Ciudadanos)

## MATERIALISMO HISTERIKOA

## Espainiari buruz



UXUE APAOLAZA LARREA

**Z**ein zen beldurra? Zerk elkartu gaitu, urduri, zu eta ni telefonoaren alde banatan? Zu Madrilen eta ni hemen? Oso oinarrizko eskubideak ziren. Eta dena amaitu deanean, gutxienez, ez da guztiz gertatu. Zazpitan hasi dugu el-karrizketa, telebistekin batera, baina, lehenago, Twitterren, joera batek eman dit arreta: "Gracias Irene".

Oso goiz ikusi dugu telebistan Sumarren egoitzako euforia. Eta kanpaina osoan gertatu zaigun moduan, inkietantea iruditu zaigu keinua, beraiek bakarrik ikusten duten testu-igurren batekoa. Zer irabazi dute? Batzuek eman behar izan diozue botoa Sumar delirante honi, besterik ezean. Horretan nik abantaila nuen.

Hauteskundeak maiatzean hasi ziren. PSOEek galdu egin zuen. Eta ez genuen pentsatuko ia era desesperatuan hartutako erabaki hark, hauteskundeak aurreratzea, halako emaitzak emango zizkionik Pedro Sánchezi. Gauza asko ikusteko denbora eman du, ultraeskuina atzean gerarazi dutenak. Baina ezkerrean ere gertatuarazi zituen gauzak, hauteskundeak aurreratuta.

Pedro Sánchezek molestatzen zion guztia kendu du gainetik. Orain ez dago Podemos, ez dago Irene Montero. Orain, Espainiako telebista publikoko azken eztabaidan Trans Legea, "Soilik bai da bai" legea ultraeskuinaren erasoetatik defendatu ez zituen Yolanda Díaz bat dago, Sánchezi Pedro esaten diona. Eta Pedro Sánchezen lagunei, berak esanda dakigu, ez zaie gustatzen konfrontatzen duen feminismoa, nahiago dute feminismo integratzaileago bat.

Nire abantaila zure abantaila egiazkoena bilakatu da, EHBildu atera delako Madrilen entzun nahi zenuena esatera. Hainbat pertsona botatzera eraman dituen eskubideak ondoen defendatu dituen ministro feminista lurperatu du Sánchezek. Gehien molestatzen ziona. Hori ere lortu du. Beldurrak ez dira guztiz gertatu, beraz; baina ez diegu irabazi. ●

## EZ HANKA EZ BURU

 ADUR LARREA  
www.adurlarrea.com


ADUR

 ARGIA azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45

**Zaldi bat ihes  
garrezko  
zelaian**

Koldo Izagirrek  
egindako  
hautaketa


**Ño!**

Komikia

Eli Pagola,  
Maitane Gartziandia  
eta Miren Artetxe



**OTU**  
Sortu zuen  
istorioak  
Karta-jokoa  
70 karta





Argazkietan, Hezkidetza eta Pedagogia Feministen II. Kongresua, Donostian.

# BAZTERRAK MUGITU EROTIKAK IRAULTZEKO

Zer dira erotikak? Zein leku dute bazterretako erotikak iruditegian? Nola landu erotika eskola eta institutuetan? Galdera horiei eta beste askori erantzun diete Eider Goiburu, Mentxu Arrieta eta Elena Urkok. Sexualitatean adituak dira hirurak, eta bazterretako erotikaz mintzatu dira Hezkidetza eta Pedagogia Feministen II. Kongresuan, Donostian.

 OLAIA L. GARAIALDE

 HEZKIDETZA ETA PEDAGOGIA FEMINISTEN KONGRESUA

**A**ngelu askotatik landu daiteke sexualitatea. Nola ulertzen duten erotika abiapuntu hartuta, erotiken iruditegi sozialaz, erreferenteez eta sexu heziketaz mintzatu dira solaskideak. Prozesu pedagogiko feministen premia nabarmendu dute, Sorginlorek eta Ikertzek antolaturiko kongresuan.

Gorputz disidenteen errepresentazioaren bueltan lan egiten du Urkok. Sexu hezitzailea da eskoletan eta BDSM eskolan aritzen da. Horrez gain, Bartzelonako mugimendu transfeministan eta postpornoan aritu da. Urkok estimuluekin lotzen du erotika; hau da, harentzat erotika da irudi, usain edo egoera bat plazera edo eszitazioa produzitzen duena. Definizioa zabaltzeko, nabarmendu du plazera ere bizitzako beste eremuetara zabaldu daitekeela; emozionala, psi-

kologikoa eta intelektuala, besteak beste: “Gerta liteke gaur bezalako espazio batean plazer intelektuala sentitzea eta jardunaldi hau espazio erotiko bihurtzea”.

Feminista, pedagogian doktorea, gizarte psikologoa, sexu hezitzailea, irakaslea, formatzailea, ikertzailea eta aholkularia da Goiburu. Gaur egun, batez ere esku-hartzeen eta arlo akademikoaren arteko zubi lanak egiten ditu. Haren ustez, erotikek harreman zuzena daukate plazerarekin eta desioarekin: “Plazerarekin konektatzeko daukagun modu anitz eta aldakorrek dira erotikak”.

Gaineratu du sistemak soilik zilegitasuna ematen diola erotika konkretu bati: “Erotika hegemonikoetan sozializatzen hasi arren, aldi berean gutako askok esperientzia disidenteak ditugu. Hegemonia deseraikitzen goazen heinean norbanako erotikak sortzen dira”.

Psikologia sozialean doktorea, sexologian aditua eta aktorea da, besteak beste, Arrieta. Horrez gain, gazteek desgaitasunen inguruan dituzten sinesmenak eta jarrerak aztertu ditu. Haren ustez, sistema zisheteropatriarkal, binario eta sexistaren ondorioz kolektibo "handi bat" eredu hegemoniko horretatik kanpo geratzen da: "Sinetsarazten digute gorputz lodiek, orbainak eta ildoak dituzten gorputzek eta dibertsitate funtzionala daukaten gorputzek ez daukatela lekurik sistemari".

Desgaitasunen bat duten pertsonen erotika bazter batean geratu dela dio, espazio publikoetatik eta pribatuetatik kanpo: "Kontrolaren eta errepresioaren bidez gure sexualitatea ukatzen ari dira, errealitate batzuk ezkututzen, ez aipatzen eta ukatzen dituztelako".

Gaineratu du desgaitasunen bat duten pertsonen sexualitatea ukatzea eskubide sexualak ukatzea dela: "Derrihorrezko gorputz gaitasunak eta derrihorrezko heterosexualitateak elkarri laguntzen diote dibertsitate funtzionala dugun pertsonen eskubide eta plazer sexualen ukazioan".

Medikuntzaren ikuspegitik arautik at dauden gorputzak patologizatu direla salatu dute Arrietak eta Urkok. Horren ondorioz, Urkok azpimarratu du medikuntzaren arabera gorputz trantsak eta desgaituak "modifikatu" egin behar direla: "Historikoki gure gorputzak arbuiaitu dituztenez, esaten digute gure gorputzek ez dutela balio. Nola hurbilduko gara sexualitate esaten badigute gure gorputzak ez direla zilegi?".

## IRUDITEGI BERRIAK

Iruditegi hegemonikoaren kontra errealitate disidenteak ikusaraztea garrantzitsua dela azpimarratu du Arrietak: "Iruditegi narratiboa aldatu behar dugu iruditegi soziala aldatzeko". Gaineratu du desgaitasunen bat duten pertsonen infantilizazioak sexualitate-rako zilegitasuna kentzen diela: "Plazera sentitzeko, sexualitatea bizitzeko, desiratzeko eta desiratuak izateko eskubidea dugu". Hala ere, desiratuak izateko eskubidea "gutxi batzuentzat" egi-na dagoela dio: "Sinetsarazten digute ez garelako maitasunaren eta plazeraren merezidun".

Bat egin du horrekin Urkok, eta gaineratu du pertsona sexu genero disidenteek eta desgaitasuna duten pertsonen arteko aliantzak oso garrantzitsuak

“ ”

Kontrolaren eta errepresioaren bidez gure sexualitatea ukatzen ari dira, errealitate batzuk ezkututzen, ez aipatzen eta ukatzen dituztelako

MENTXU ARRIETA

“ ”

Zaila da ikusten ez dena desiratzea; horregatik, gure esku dago erabakitzea zer erakusten dugun eta zer ez

ELENA URKO

direla: "Munstro gisa irudikatu gaituzte, ezkutatu beharreko zerbait izango bagina bezala; perbertsoak eta desbiatuak garelako zabaldu dute".

Edukiak noren begiradatik sortzen diren, eragin handia dauka sortzen den iruditegiari; horregatik, porno eduki sortzailea den heinean ardura "handia" duela esan du Urkok: "Zaila da ikusten ez dena desiratzea; horregatik, gure esku dago erabakitzea zer erakusten dugun eta zer ez". Gaineratu du aztertu behar direla zein praktika sexuali ematen dieten zilegitasuna eta zeintzuei ez eta zergatik.

Hala ere, uste du eduki sortzaile berriek esker azken hogeitaz arren, asko aldatu dela iruditegia, eta gero eta erre-

ferente gehiago daudela. Pornografian ere gorputz eta identitate "pila bat" ikusarazten ari direla uste du: "Ikuspegi etikoa duen pornoa daukagu; gainera, horrelako orrialdeetan ez bazara errepresentatua sentitzen, elkarrekin filmatzera gonbidatzen zaitugu eta denon artean erabakitzen dugu zer filmatu".

Sexu heziketarako zenbait baliabide aipatu ditu azkar batean; hala nola Sex School -sexu heziketa-; Sexus -sexualitateen inguruko informazioa eta aholkularitza- eta Sida Studi -sexu heziketa feminista-. Goiburuk salatu du euskal baliabideen gabezia "handia" dagoela: "Bazterretako erotiketatik post-porno euskalduna egin beharko genuke".

## PROZESUZKO ESKU-HARTZEEN PREMIA

Sexu heziketa geletara eramateko bidez ere mintzatu dira. Esku-hartze gehienak ikastetxeetan egiten ditu Goiburuk eta bi lan ildo nagusi daudela uste du. Alde batetik, solaskideek bezala, uste du erreferentzialtasuna "beharrezkoa" dela: "Beste erreferentzialtasunak bilatu behar ditugu edo orain arte dagoena erreproduzitzen jarraituko dugu". Bestetik, aipatu du sexu fantasiak sistematik datozen arauak hausten laguntzen dutela: "Hala ere, sexu fantasiak eskola batera eramatea ez da orokorra".

Hiruki Larroxak deituta beste eragile eta hezitzaileekin batera lanean bizi dituzten egoerez hausnartzeko prozesu bat egin du Goiburuk. Bertan, ondorioztatu dute "jauzkariak" edo "suhiltzaileak" sentitzen direla: "Ez dago prozesu ikuspeirik. Indarkeria arazo bat dagoenean deitzen digute ahalik eta azkarren konpontzeko, eta hor sexu fantasiak eta erreferentzialtasunak ez daukate lekurik".

Esku-hartzeak bat-batekoak izateaz gain, lau, sei edo zortzi ordukoak izaten direnez zaila da espazio seguruak sortzea: "Gorputza eta intimitatea erdigunean jartzea eskatzen ari gara, eta horretarako espazio seguruak behar ditugu. Gaur egun ikastetxeak ez dira espazio seguruak, esan dezakeguna epaitu edo gure kontra erabili dezaketelako". Horretarako, erotikak pedagogia feministetatik landu behar direla azpimarratu du eta prozesuzko esku-hartzeak egin.

Nabarmendu du interseksionalitatea kontuan hartu behar dela, eta gorputz edo identitate normatiboak izan arren,





hezitzaileek erreferentzialitatea nola zabaldu dezaketen ere aztertu du jardunaldietan: “Askotan sortzen zaigun zalantza da ea zilegitasunik dugun gai batzuen inguruan hitz egiteko, gu horren subjektu politiko izan gabe”, esan du Goiburuk. Bere ustez, ez da zilegitasun kontua, ardura kontua baizik: “Nire ardura da ahots guztiak jaso eta lekua uztea beraiek espazioa hartzeko eta gai horiek mahai gainean jartzeko”.

Horri lotuta, hezitzaileek autokritika egin beharko luketela uste du, adinkeriaz jokatu ohi dutelako. Adibi-

“ ”

Indarkeria arazo bat dagoenean deitzen digute ahalik eta azkarren konpontzeko, eta hor sexu fantasiak eta erreferentzialtasunak ez daukate lekurik

EIDER GOIBURU

derako, ikasle batek esku-hartze batean bisexuala zela esan zuenean hezitzaileak izandako jarrera salatu du: “Hezitzaileak esan zion fase bat zela. Iruzkina horrek, bifobia izateaz gain, adinkeriaz jokatzeko ari zela adierazten du. Ez dut uste bere adineko norbaiten bizipenak horrela jarriko lituzkeenik kolokan”. Horregatik, haur eta nerabeen subjektu politiko izatera aitortu behar dela aldarrikatu du: “Beraiek dira haien bizipenetatik gehien dakitenak eta gai dira ulertzeko, hausnartzeko eta pentsatzeko”. ●



**endanea**  
MÁS QUE UN GARDEN

943 64 17 10  
[www.endanea.com](http://www.endanea.com)

**Zaindu intsektuak**

Izurriteei kontra egiteko produktu ekologikoetan aukera zabala dugu, baita intsektu lagungarriak zaintzekoak ere.

Online denda 



Orain gure produktuak  
**ADUNA GARDENEN**  
ere

## 'EULIZAKUAREN ZARATA' ANTZEZLANA

# Txutxumutxuen burrunbak eragindako mina erreparatzeko

Hernanin jazotako eraso matxista batzuen kudeaketa prozesua modu "eraikitzaileago" baten bidez ixteko, hernaniar talde batek ekainean *Eulizakuaren zarata* antzezlanaren eskaini zuen, gainezka zegoen kultur aretoan. Taldeko kide diren Maitane Barrenetxeak eta Arantxa Arrietak azaldu digute espero ez zuten eragina izan duela antzezlanak: bai parte-hartzaileen osaketa prozesurako, bai herritarren kontzientziak mugitzeko. Ezohiko obra honetan ikusleak ispilu aurrean jarri dituzte, zenbait jarrera zalantzan jartzeko.

 LEIRE ARTOLA ARIN  UXUE BEREZIARTUA LONBIDE / ARGIA CC BY-SA

Estreinaldiko urduritasun eta tentsioa pasata, *Eulizakuaren zarata* antzezlan herrikoiairen parte diren Maitane Barrenetxeak eta Arantxa Arrietak penaz baina asebeteta azaldu diote ARGIAri "bukatu" dela. Ekainaren 15ean eskaini zuten antzezlanaren lehen eta azken emanaldia, 30 lagun inguruko talde "amateurrarentzat" konplexua delako saio gehiago egitea. Antzerkia bukatu da eta prozesua itxi dute; aldiz, ireki dira hainbat zirrikitu ikus-entzuleengan.

"Duela urte batzuk, indarkeria matxistako eraso batzuen kudeaketarako prozesu komunitario bat abiatu genuen. Prozesuan zehar landutakoak hernaniarrekin eta herritarrekin modu zabalagoan partekatze asmoz sortu da antzerkia egitearen ideia", zioen antzezlanaren iragarpenak. "Antzerki hau ez da oso ohikoa" esanez hasi zuten emanaldia publiko artetik irten ziren antzezleek, eta halaxe izan da, ezohiko elementu ugari baititu *Eulizakuaren zarata*. Hasteko, eraso matxisten kudea-

keta prozesua antzerki bidez ixtea bera berritasuna da.

Berrikuntza da, halaber, aktoreak ez diren hamabost hernaniar, adin, genero eta inguru desberdinetakoak, oholtza gainean ikustea. Prozesuan parte hartu duten horiek berak dira antzerkia prestatu eta gorpuztu dutenak, eta helburu izan dute herritarrei hausnarketara bultzatzea, eraso matxisten aurrean izaten duten jokabideen gainean: "Eraso bat dagoenean mina dago, baina herriaren erreakzioak min handiagoa sor dezake, berbiktimizazioa eragiten du". Komunitatearen papera ekarri dute erdigunera. Txutxumutxuek sortzen duten mina plazaratu nahi izan dute eta adierazi noraino iristen diren herrian egiten diren komentarioak, batik bat prozesuko kideei eta mugimendu feministakoei zuzendutakoak.

### TXUTXUMUTXUEN ZARATA

Obraren hasieran eulien burrundara desatsegina entzuten da, ikus-entzuleak

urduri jartzeko bezainbeste irauten duen denbora tartean. Antzezleak saiatzen dira zarata hori isilarazten, baina taldean batu arte ez dute lortzen eulia hiltzea. Publikoan tentsioa eragiten du eszenak, gainerako esketxek bezalaxe. Finean, antzerkiko protagonista da "laugarren paretari" deritzona, hau da, ohol-tzatik kanpo dagoen publikoa. Hortik izenburua, *Fleabag* seriean darabilten kamerari hitz egiteko teknika oinarri hartu, eta itzulpen propioa egin diote: *Eulizakua*.

"Laugarren paretari" zuzenean hitz egiten diote beste esketx batean, airean utzitako galdera potoloak banan-banan botata: "Albisteetan ageri diren erasoak bakarrik dira eraso? Erasoa bat jasaten dudan aldiro salatu behar dut? Zenbatean ikusi dut eraso bat? Zergatik kostatzen zaigu hainbeste erasoez hitz egitea? Zenbatean egin dut zerbait nire lagunen bat tartean dagoenean? Zer da eraso bat?". Arrietak dioenez, uste dute lortu dutela jendearen "botoiren bat ukitzean",



eta ikusle batzuek esan diote egunetan “digeritu beharreko edukia” zela tau-laratutakoa. Eskertuta dago izandako harreragatik eta emanaldiaren egunean sortutako giroagatik.

Harridura ere piztu die izandako erantzunak eta aretoko argiak piztutakoan ikusitakoak: “Guk hain landuta geneukan gidoia, umorez lantzen genuela, eta ondo pasa genuen momentuan. Horregatik, ez nuen espero amaieran ikusitako malkorik, ezta jendearekin hainbeste konektatzerik ere”, aitortu du Barrenetxeak. Jendea hunkitzea baino, deserosotasuna sortuko zutela uste zuten.

### HERRITARREN ISPILUA

“Batzuk oso islatuta sentitu dira, eta guk hori bilatu dugu, Hernanin girotzea eta

egunerokotasunean dauzkagun egoerak antzeztea, eta ispilu izatea”, berretsi du Arrietak. Obraren hasieran lagun talde bat trago bat hartzen ikusten da, eta haietako batek kontatzen du eraso bat jasan duela. Lagunen erreakzioak, ordea, babestu beharrean gehiago hondoratzen du. Jarraian hasten dira inguruko erreakzioak, esketxez esketxe: eraso salatu duen emakumea zalan-tzan jartzen duten iruzkinak, eraso egin duenari buruzko txutzumutxuak, begiradak, epaiak... “Norekin zegoen gertatu zenean? Baina horrek ez dauka bikotekidea? Nor da eraso egin duena? Eta non? Eta nola zihoan jantzita?”.

Eszenaratu dute prozesua ixterakoan komunitateak izan ohi duen jarrera ere: kudeaketaren parte izan direnei

“kontu eskeak” eta kritikak, eraso jasan duenari emandako eskatu gabeko “aholkuak”, eraso egin zuena etengabe epaitzea, eta beste. Antzezleek irudikatu dute urteetako prozesuan ezertarako inplikatu ez diren herritarrek bat-batean zenbat azalpen dituzten emateko, ustez asmo onez izanda ere.

“Ez dugu errurik bota nahi izan, denok paper guztiekin identifikatuta sentitzea nahi genuen; ez dugu banandu ahots txar bat eta on bat”, zehaztu du Arrietak. Ez dute epaitu nahi izan zein jarrera dauden ondo eta zein gaizki: “Ikusarazi nahi izan dugu denok dauzkagula horrelako jokabideak; balio dezala gogoetatzeko hurrengoan nola jokatatu edo nola eta nondik hitz egin gai honi buruz”.



## “HAU PASA ZAIT”

Gidoia lantzeari berebiziko pisua eman diote, eta zenbait gako errespetatu dituzte, esaterako, umoretik lantzea. Urtarrilean hasi ziren, eta hiruzpau hilabetez moldaketak egiten joan dira, entseguetan taldekideek egindako ekarpenei esker. “Denbora luzea eman dugu erabakitzen zer eta nola transmititu nahi genuen”, dio Barrene-txeak. Erasoari buruzko zehaztasunik ez ematea ere bereziki zaindu dute: “Ez genuen nahi jendeak eraso zehatz bat irudikatu zezanik, ez delako eraso bat bestea baino gehiago. Ez genuen egoera jakinekin lotu nahi”. Gidoiari buelta asko eman ostean, formula topatu dute: “Hau pasa zait, hemen eta honekin” esaldiaren bidez jendarteratu dute eraso. “Nahikoa da hori esatea, jendeak egingo du bere istorioa buruan”, ziurtatu du Barrene-txeak.

Esaten denaz gain, nork esaten duen ere zaindu dute, inor ez zedin deseroso sentitu jokaturako paperarekin: “Saia-tu gara oso kontziente izaten nork zein rol hartu, prozesuan edo bizitzan izan dituen bizipenen arabera”. Taldea “amateur” gisa definitzen badute ere, oholtzan maila altua erakutsi dute, eta halaxe helarazi die publikoak ere; “ez zuten espero guk hain ondo egitea”, umorez hartu dute Barrene-txeak eta Arrietak. Horra heltzeko bidelagun izan dituzte Miren Gojenola eta Esti Veintemillas, zuzendari lanetan eta antzezlearen prestaketan, besteak beste.

Oso gutxitan agertzen den rol bat ere taularatu zuten: obra zeinu hizkuntzan antzeztu zuen Lierni Mateok. Prozesuko partaide eta zeinu hizkuntzako itzultzailea da Mateo, eta proposatu zien antzezlan barrutik interpretatzea,



itzulpenetik harago. Mateok dioenez, gorrentzat oztopoa izaten da itzulpena eta eszena aparte egotea, eta modurik egokiena da antzezlea bera izatea interpretea; izatez, anekdotikoa da halakorik ikustea. Mateok ez du ahotsa proiektatzeko ikasi behar izan, besteak bezala, baina emanaldiko paper guztiak zuzenean interpretatu ditu. Arrakasta izan zuen, izan ere, ikusleen artean bederatzi bat pertsonak behar zuten zeinu hizkuntzako itzulpena, eta asko eskertu zieten diote taldekideek. Euskaratik gaztelararako itzulpena, berriz, bost bat lagunek erabili zuten.

## ERREPARAZIO ARIKETA

Emanaldiaren egunean “poza eta eskertza” sentitu zuten Barrene-txea eta Arrietak, baina azpimarratu dute horraino iristeko prozesua izan dela aberasgarriena. Indarkeria matxista kudeatzeko prozesua barrutik bizi izan

dutenez, antzerkiarena “zatirik onena” izan dela diote: “Giro onekoa, sortzailea, eraikitzailea, talde eta energia berezia sortu duena...”. Prozesuak zailak izaten direla gogorarazi dute, eta antzerkiak zama hori arintzen lagundu diela: “Hasierako minari eta nekeari gehitu zaizkio poza, maitasuna eta positiboagotzat hartzen ditugun beste sentimenduak”, baieztatu du Barrene-txeak. Arrietak gehitu du lasaitasuna eman diola gaia umoretik lantzeak: “Barre egin dut, eta egoerak erridikulizatzeak baimendu dit prozesua beste toki batetik bizitzen”. Bat dator Barrene-txea, esanez antzerkiak aukera eman diela arrazionaletik eta burutik landu beharrean, gorputzetik eta sentipenetatik lantzeko.

Azaldu dute “osatze lan izugarria” izan dela eta prozesuko partaideek asko eskertu dutela. “Prozesuan inplikaturik daudenak izatea dena prestatzen eta gorpuzten aritu garenak...”, Barrene-txeak uste du horretan asmatu dutela. Arrietak gaineratu du bakardadetik bizi diren kontu batzuk kolektibizatze balioko izan diela, eta minak onartzeko: “Denon artean erabaki dugu bakoitzak zein rol jokatu, eta mahai gaineratu dugu paper batzuk ez ditugula nahi gehiegi mugitzen gaituztelako”. Barrene-txearen iritziz, erreparazioaz gain ahalduntzea ere sortu du: “Nahiz eta rol horretatik ez izan, finean, herriari norberak kontatzen dio gertatu zaiona”.

Azken esketxean berriro errepikatzen da hastapenekoak, lagunei erasoaren berri ematen dienekoak: “Honekin hau eta hau pasa zait”. *Eulizakuari* uzten diote hitza, nola jokatu erabaki dezan. ●





## ADIMEN ARTIFIZIALA

# Algoritmoek ezkututzen dutena bistaratzeko

Algoritmo hitza ezagun samarra bada ere, oro har gizarteak ez daki zer diren, ezta zertarako erabiltzen diren ere. Adimen artifizialaren esparruan duten garrantzia abiapuntutzat hartuta, horien inguruko azalpenak eman ditu Lore Martinez Axpe EH Bilduko digitalizazio idazkari eta legebiltzarkideak lametza enpresak sortutako *Hodeia ez da existitzen* podcastean. Eusko Jaurlaritzak erabiltzen dituen algoritmoen erregistro publikoa sortzea adostu dute Eusko Legebiltzarrean, eta egitasmo horren inguruan aritu dira irratsaioan, baita adimen artifizialaren aukera eta arriskuez ere, besteak beste.

 IRATI IRAZUSTA  ENERITZ ARZALLUS / ARGIA CC BY-SA

**E**AJ, EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemosek adostutako testuan eskaera egiten zaio Eusko Jaurlaritzari, Datuaren Adierazpen Etiko bat onartzeko, administrazio publikoan datuen erabilera gidatuko duen printzipio etiko eta balioen berme bezala. Erregistro publiko gardena sortuko da, administrazioak erabiltzen dituen algoritmo eta adimen artifizial sistema guztiak barne hartuko dituena, baita hark azpikontratatzeko dituen hornitzaileenak ere. Hain justu, Lore Martinez Axpek aurkeztutako mozioa dago akordioaren oinarrian.

### EMAITZA "DISKRIMINATZAILEAK"

Funtsean, adimen artifiziala litzateke ahalmen konputazional izugarri handiko ordenagailuak milioika datuarekin elikatu, algoritmoen bitartez datuok prozesatu eta patroiak identifikatu ostean ondorioak ateratzea edo "erabakiak hartzea". Soluzio bat bilatzeko egiten diren





eragiketa edo prozedurak dira algoritmoak. Arazoetako bat zein den? Emaitzak “diskriminatzaileak” izan daitezkeela askotan, Martinezen hitzetan. Administrazio publikoari ere aplika dakioke hori. Alegia, adimen artifizialaren datu uholdeaz ari garenean, kontuan izan behar da informazio hori prozesatzen duten algoritmoek herritarrak diskriminatu ditzaketela.

Adibide bat jartzearen: Ertzaintzak indarkeria matxistaren arriskua neurtzeko sistema xenofobo bat erabiltzen duela ondorioztatu zuen Algorithm Watch-ek egindako ikerketa batek. Galdeketa psikologiko bat du oinarri EPV-R algoritmoak, eta besteak beste biktimak edo delitugileak “atzerritarrak” ote diren galdetzen du. Gainera, galdetegiak, atzeritar gisa mendebaldarrak ez direnak baino ez ditu jotzen. Oskar Fernandez Ertzaintzako ikuskatzaile nagusiak azaldu zuenez, “europarrak ez diren bestelako kultura dutenak” sartzen ditu kategoria horretan.

Halaber, AEBetako Cornel Unibertsitateak EPV-R-ren errendimendua aztertu zuen, eta ondorioztatu zuenez, beste bide batzuetatik “arrisku handikotzat” jo ziren kasu gehienak (%53) “arrisku txikikoak” zirela ondorioztatu zuen algoritmoak. Hau da, arrisku handia dago algoritmo horrek “kasu larriak” gisa horretan ez baloratzeko.

## DIRULAGUNTZAK UKATZEKO AHALMENA

Herritarren ekonomian eragiten duten erabakiak ere har ditzakete adimen artifizial horiek. Horietako bat da Bosco, argindarraren faktura ordaintzeko gizarte-bonua erregulatzen duena. Eskaearak berrikustean esku hartzen du, eta emaitza erabakitzeke eskumena ere badu. Civio taldeak algoritmoaren zenbait diskriminazio salatu zituen, laguntza jasotzeko eskubidea duten sektore batzuk kanpoan uzten dituelako.

Dirulaguntza hau jasotzeko hiru aukera daude: errenta baxuak izatea, familia ugaria izatea edo gutxieneko ezintasun-edo erretiro-pentsio baten onuraduna izatea. Alargun batek azken hori aukeratu beharko luke, baina Boscok “kalkulatu ezinezkotzat” jotzen du prozedura eta hori da enpresa elektrikoei helarazten dieten mezua. Hala, alargunei laguntza ukatzen die, jasotzea dagokien arren. Familia ugariako kideek, berriz, beren errentak edonolakoak izanda ere, laguntza hori jasotzeko eskubidea dute, legez. Boscok,

“Teknologiarekin progresistak izateko tendentzia handia daukagu, eta produktu berriak aurrez hausnartu gabe erabiltzen ditugu”

## Lore Martinez Axpe

ordea, eskatzaileen errenta aztertu behar izaten du, eta norbaitek ez badu bere diru-kontuak aztertzea baimentzen, ez zaio laguntza hori ematen, algoritmotik kanpo uzten dituelako.

Algoritmoek, aplikatzen zaien adimen artifizialaren arabera, diskriminazioa “esponentzialki handitu” dezaketela azaldu du Martinezek. “Horregatik da hain garrantzitsua datuak ongi prestatzea algoritmoekin. Saiatu behar dugu datuak diskriminatzaileak izan ez daitezen, eta algoritmorik sartzen direnerako oinarri ona izan dezaten”.

## ALGORITMOEN ERREGISTRO PUBLIKOA

Zer izango da herritarrek kontsultatu ahal izango dutena? Funtsean, norberaren datuak non eta zertarako erabili diren jakiteko eskubidea izango dute. EH Bilduko legebiltzarkideak adibide bat ekarri du podcastera. Demagun, norbaitek gaixotasun bat izan duela eta bere datuak erabili dituela algoritmo batek, aurreikusteko gaixotasun hori jasan duten pertsonen berriz ere gaixotzeko zer baldintza bete behar dituzten. Datu horien jabeak jakin ahal izango du hori guztia, datu horiek eragin diskriminatzaileak izan ote duten ere bai. Horrez gain, norbait ez badago bere datuei erabilera hori ematearekin konforme, nola apelatu dezakeen ere jakinarazi beharko zaio.

Norberaren datuekin zer egin den jakin ahal izango du herritar orok, baina askok eta askok algoritmo bat zer den ere ez dakite oraindik. Horregatik, erabiltzen den hizkuntzari garrantzia eman

dio Martinezek: “Herritarrek ulertzeko moduan azaldu behar da. Erregistroa ez da informatikoei kontsultatzeko, edonork kontsultatzeko baizik”.

Erregistro publikoa sortzea “0. fasea” baino ez da, EH Bilduko legebiltzarkidearen hitzetan. “Onurarik handiena da algoritmoen kontua sozializatzen hasi garela. Gure datuak nola lantzen diren jakitea herritarren oinarriko eskubide bat da, nahiz eta oraindik asko dagoen egiteko”. Auditoriak beharrezkotzat jo ditu Martinezek, hitz emandakoa betetzen dutela frogatzeko eta diskriminaziorik ez dagoela egiaztatzeko.

## LEHEN AUTONOMIA ERKIDEGOA

EAE izan da algoritmoen erregistro publikoa onartu duen Espainiako Estatu-ko lehen autonomia erkidegoa. Hala ere, Europako zenbait hiritan badira kasu gehiago: Bartzelonan, Helsinkin eta Amsterdamen. Europar Batasuneko adimen artifizialeko batzordearekin kontsultatu zuen EH Bilduk Eusko Legebiltzarrean egindako proposamena, eta Martinezek azaldu du, batzordeko kideek esan zietenaren arabera, erregistro publikoak egitea “tendentzia” izango dela Europako gainerako herrialdeetan ere.

Kataluniako hiriburukoa nabarmendu du legebiltzarkideak. Apirilean, administrazioan algoritmoen erregistro publiko bat sortzearen inguruan lau adituk hitz egin zuten Eusko Legebiltzarrean, tartean Michael Donaldson-ek, Bartzelonako Udaleko Berrikuntza Teknologikoko, Administrazio Elektronikoko eta Gobernu Oineko ordezkariak, eta Bartzelonako kasuaren berri eman zuen.

Kontatu zuen nola 2022. urte bukaeran protokolo bat onartu zuen hango udalak, algoritmo bat erabili aurretik eta ondoren hartu beharrezko neurriak zehazten zituena. Protokoloaren arabera, zerbitzu publikoak eskaintzeko sistema algoritmitiko bat erabili aurretik, informatika zerbitzuak arriskuen ebaluazioa egin beharko du. Arrisku handikotzat jotzen ditu eskubide sozialak edo herritarren datuak ukitzen dituzten prozesuak, baita dirulaguntzak banatzean diskriminazioak eragin ditzaketenen ere.

## PROBATU AURRETIK, MERKATURA

Martinezek teknologia ez probatzearen arriskuaz ohartarazi du. “Teknologiarekin progresistak izateko tendentzia handia daukagu, eta produktu berriak aurrez hausnartu gabe erabiltzen ditugu. Ari gara ikertzen, berritzen, teknologia



lamezta enpresak gonbidatuta hartu du parte EH Bilduko digitalizazio idazkari Lore Martinez Axpek *Hodeia ez da existitzen* podcastean, algoritmoen erregistro publikoa aitzakia gisa hartuta. Mikrofono aurrean kontatutakoak ekarri ditugu orriotara.

soluzio digital berriak ateratzen, eta berri bezain laster merkatura ateratzen ditugu". Botikekin egin du alderaketa. "Sendagaiak ere ikertu eta berritzen dira, baina merkatura atera aurretik milaka proba egiten dira horien ondorioak jakiteko; gero, ondorio horiek prospektu batean azaltzen dira. Prospektu horrek azaltzen du sendagai horrek zein kalte eta arrisku dituen". Legebiltzarkidearen ustez, adimen artifizialean ere berdin jokatu behar litzateke: "Behin produktua aurrean izanda, galdetu behar da: 'Zein kalte ditu? Bermatzen al du datuen babeserako legea? Diskriminatzailea al da?'".

ChatGPT adimen artifizialarekin ere berdin jokatu zutela dio: "Lau hilabeteetan produktua bukatu eta merkaturatu egin zuten, zuzenean". Tresna horrek ez du datuen babeserako legea betetzen, eta, horregatik, Italian debekatu egin dute, merkaturatu ondoren. "Nire ustez hori hasieratik egin behar zen. Ez da utzi behar teknologiarik merkaturatzen, ez badago aurrez probatuta". Lan hori en-

---

"Gure datuak nola erabiltzen diren jakitea herritarren oinarrizko eskubidea da"

**Lore Martinez Axpe**

presaren ardura dela uste du: "Enpresa batek ez luke merkaturatu behar pertsonon kalterako izan daitekeen zerbait".

#### **EUSKAL HERRIAN ZER?**

"Km0-ko eraldaketa digitala" defendatu du Martinezek, horren bitartez soluzio teknologikoak Euskal Herrian eraldatu eta hobetuko lirakeelakoan. Horrek

datuak bertan geratzea ekarriko luke. Gainera, "politika publiko onekin" talentu teknologikoa ere hemen sortu, sustatu, eta, baldintza onak bermatuz gero, hemen geldituko litzateke, bere hitzetan.

Hala ere, Euskal Herrian jada teknologiako adituen "ekosistema indartsua" dagoela uste du, "zer esanik ez konputazio linguistikoan". Ordea, hori diruz laguntzen ez bada "jai" daukagula ohartarazi du. Besteak beste, GAITU gisako euskarazko hizkuntza-teknologiaren aldeko proiektuak finantzatzea beharrezkotzat jo du. "Euskarak bizirauteko eraldaketa digitalaren parte izan behar du, bestela, ez du etorkizunik izango".

Martinezek espero du adimen artifizialak inoiz ez aurre hartzea gizakiari, "baina ez da erraza izango". Araudiak eta legeek kontzientzia pizten lagundu behar dutela dio: "Ea guztion artean gaitzaren teknologia digitalak gizakion bizitzak hobetzeko harraminta izan daitezten, eta ez kontrakoa gertatzeko". ●

# FOODTECH vs AGROEKOLOGIA, NORK IRABAZIKO DU LEHIA?



**ASUNEK**  
AINTZIRA OÑEDERRA  
GOIURI ALBERDI

FoodTech edo elikagaien industria teknologikoak biderkatzen ari dira elikadura segurtasunaren izenean. Gainprodukzioan oinarritutako elikadura-sistema industrialaren parte izanik, onura ekonomikoa dute helburu, ez ordea elikadura-eskubidea, elikagai-xahuketa ere merkantilizatuta baitago.

**F**oodTech edo elikagaien industria teknologikoak biderkatzen ari dira elikadura segurtasunaren izenean. Gainprodukzioan oinarritutako elikadura-sistema industrialaren parte izanik, onura ekonomikoa dute helburu, ez ordea elikadura-eskubidea, elikagai-xahuketa ere merkantilizatuta baitago.

Komunikabideetan oharkabean joan bada ere, uztailaren 12an, Europako Parlamentuak Natura Leheneratzeko Legea bozkatu eta ozta-ozta aurrera atera zuen. Balio beza ekosistemak berrezartzean oinarritutako lege hau, elikadura kapitalistaren atzaparrei oztopoak jartzeko. Lan handia dugu ingurumena kaltetzen duen elikadura sistema agroindustrial defendatzen duten politikari eta lobby handiei boterea kentzeko.

Gurean ere lobby hauek oso errotuta daude. Horren adibide, hirugarren urtez jarraian *Food4Future* biltzarra antolatuta da BECen. "Food-Tech revolution" lelopean, planeta eta gizartearen salbatzaileak bailiran, nekazari txikiak eta lehen sektorea alde batera utzita. Donostian

ere haragi sintetikorako fabrika jarriko da martxan. *Food-Tech* industriak diru-kutxa publikotik milioiak jasotzen dituen bitartean, Euskal Herriko lehen sektorea krisi larrian dago.

*Food-Tech* lobbiek, 2050erako munduaren elikadura eskasiari aurre egin nahi omen diote, ingurumena ere babes-tuz. Hala ere, munduko biztanleri osoa elikatzeko adina janari badago, arazoa ordea da ez dela ondo banatzen. Datuen arabera, azken hamarkadetan *per capita* elikagaien ekoizpena %12 handitu da urteko. Denbora berean, ordea, desnutrizio-mailak ez dira aldatu. Hots, gosea ez da elikagai eskasiaren ondorio, elikagai horiek ordaindu eta eskuratzeko ezintasunaren ondorio baizik, elikadura eskubidea ez baita oinarritzakoa. Eta gainprodukzio horretan, ekoiztutako elikagaien %30-50a xahutzen jarraituko dugu, elikadura merkantilizatua dagoen momentutik, xahuketa ere kapitalismoak behar duen fase bat delako.

EAT-Lancet komisiok gizakiaren eta ingurumenaren osasunarentzat

landarea oinarri duten dietak aholkatu zituen. Aditu hauen arabera haragi gorriaren kontsumo globala %50 baino gehiago murriztu behar da, bereziki herri aberatsetan. Hortxe, beste faktore bat sartzen zaigu. Haragi gutxiago jan eta ekologikoan ekoiztutakoa izatea. Abeltzaintza estentsiboak hainbat zerbitzu ekosistemiko eskaintzen ditu, beste ereduak bermatzen ez dutena (laborategiako okela barne): habitata mantentzea, karbonoa bahitzea, biodibertsitatea kontserbatzea, eta abar. Ekoizpen eredu honetan, gainera, ekonomia fluxuak tokiko ekonomietan integratzen dira.

Finean, elikadura segurtasuna eta eskubidea bermatzeko, biztanleriaren hazkundeari eta klima-aldaketari aurre egiteko eta, gizarte-haustura eta ingurumen-kolapsoa saihesteko; agroekologia eta elikadura-sistema lurralderatuak dira beharrezko gakoak.

Honetan dabilta azken 30 urteetan Biolurreko kideak. Zorionak egindako eta egiten zabilzaten bideagatik! ●



# HAU IRAKURTZEN DUZUNERAKO



JOSEBE BLANCO  
@HAUSNARREAN

**H**au irakurtzen duzunerako, orain artekoa bukatuta izango dugu; hemendik sei hilabetetara atzean utzi dugun horri, berriz ere, heltzeko.

Hau irakurtzen duzunerako, gaztandegiko esne-usaina apalagoa izango da. Esne-ontzia arin-arin irristatuko da, esnea berotzeko barruko urik gabe. Trasteak garbi eta bertan jasota, zain, otsaila noiz helduko, berriro esnearen epela sentitzeko. Hilabetetan, gaztandegiko oihartzunak ez du zer errepikaturik izango; geldirik egongo baitira pala, lira eta moldeak. Esne-jauzirik ez, dena lehor.

Sukaldetik ez da ardirik entzungo. Jezteko makinak ere isilik pasako ditu hurrengo hilabeteak; ez ardi, ez zereal, ez ate hotsik. Ardi marruak tartekatua go entzungo dira bazterretan; astein behin-edo ekarriko ditugu etxera - mineral-harrietan marruska dezaten, heurrenak zaintzeko...-, baina ez da gauza bera izango...

Etxe ingurua garbiegi egongo da, hau irakurtzen duzunerako. Ezin jolastu arkorotzak ez zapaltzera.

Belardiak basamortu berdeak izango dira, ardirik gabe; zuriuneek utzitako hutsuneak ere berde, berdeegi dena.

Sudurrak jasoko duen munduak ez du ardi-lurrinik izango; ez egunero behintzat. Arditara joateko tira egingo digu, bi egunetik behin, usain-eztanda horren peskizan abiarazteko: segi mendian gora, arren, goazen ardiekin!

Ezin, bada, ezezkoa eman! Eta bagoaz mendira, arditara. Belardian egongo dira, zabal-zabal, larratzen; eta gu ikustean, deika hasiko dira; pelikuletan maitaleak elkartzen diren moduan bat egingo dute, artzainak eta ardiek. Lizarren kontra eseri, eta ardis osatutako borobila izango du inguruan. Eskuek, sudurrarekiko elkertasunez, ardiak laztanduko dituzte, behin eta berriz; poroek gainezka egin arte. Eta kasualetik gutxi zuen enkontrua amaitutakoan, jada etxerako bidean,

artzainak eskuak aurpegira eraman eta ardiak usainduko ditu, bere kontsolamendurako.

Joan-etorri horiek utzitako tarteetan, lanean ari dela, ardiak gogoan izango ditu artzainak. Gogoan, hurrengo negurako belarretan ari dela; berdin, sailak esku-motosegaz pasatzen dituenean ere.

Gogoan, udako azoka ekologikoetan gaztak saltzen ari dela edo abuztuaren hasieran ahariak eta ardiak batzen dituenean. Gogoan, urrian, garotan ari dela, ardiek negurako azpigarri goxoak izan ditzaten.

Dena hemendik sei hilabetera arku-meak jaioko diren esperantzarekin. Konturatu gabe, otsailetik aurrera jertzitako esneaz egingo dituen gaztekin amestuko du. Denak ere herrikideak elikatzeko.

Hau irakurtzen duzunerako, orain bukatutakoak hasiera emango dio etorkizuneko artaldeari. Eta etortzeko dagoen herriari.

Enegarren aldiz. ●



# LIBERTINAJEA ETA LIZUNKERITZA



**JAKOBA ERREKONDO**  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

**O**raintxe dago loraldi betean, bere ia bi metroraingoko gara muturreko loretxo multzo zuri ikusgarrietan. Intsektu ugariaren pozerako, zunburrun burrundara ederra aditzen da bere inguruan. Maiztetik irailera zurtoin garai eta zurruneak lumazko korinboak dituzte, izar itxurako lore zurizta txiki ugariz osaturik. Urrutitik antzematen da; loreak bereziak dira, bikainak, dantzari arin eta mehe baten saltoaren tankerakoak; horrexegatik gero eta gehiago ikusten dira lorategie-

tan. Basatiak lore zuri-laruak edo arrosa ttantta duten zuriak dira gurean. Lorategietarako hibridazioen ondorioz, lore arrosa eta ia gorriak ere sortu dira. Itxura bat da eta bestea usaina. Arbendolaren usain gozoa gogorarazten duen lurrun nabarmena du. Intsektuen erakarle nagusia hori izango da, inondik ere; batez ere euliak ikusten dira lorez lore dantzari.

Euskal Herriaren hegoaldeko lur lehorretan semelorea, semelilia edo burdilinda da zabalduena, *Filipendula vulgaris*; loreetan ttantta arrosakarak

dituena. Ipar parteko lur heze eta astunetan, aldiz, nasailorea, soro-erregina edo aranetako erregina, *Filipendula ulmaria*; loreak zuri-laruak dituena.

Azken hori dut auzoko. Nonahi ageri du orain buru loretsua errio inguruko belaze eta azakietan. Oso gogorra -15 °C-ra arteko hotza eraman dezake-; lurroru hezea, astuna eta aberatsa du gustuko. Horregatik landare aproposa da erreka, arro, aldaparo, erreten, ur ustel edo urmael ertzak betetzeko, edo baita erriberetan utzitako soro aberatsak ere.

Baina nondik datorkio "nasailore" izena? "Nasai" hitzak esanahi ugari du. Pierre Lhande Hegi apaiz baionesaren 1926ko euskara-frantsesa hiztegiaren mardoaxka bat ageri da: lasai, oinetako zabalak; oparo, janaria; libre, mugarik gabe; handi edo zabal, soinekoa; ugari, naro edo jori, iturria; eskuzabal, laguna; mahu-ka zabal edo galbahe larriko, aitor-entzulea; aske, hitzak. Eraldi eta iriontzarekin, hondamenarekin eta gehiegikeriarekin lotzen du nasai oinarri duten nasaitu, nasaitasun eta abar. Ez ditu ahazten libertinajea, askakeria, galdukeria eta jokabide okerrak. Andoni Karmelo Urrestarazu Landazabal "Umandi", Euskerazaintzako "euskerazain" osoak bere *Asmo-iztegia*-n honela definitzen du nasai: "Aragi-irritserako ayerra duena". Eta haragi-irritsa: haragi-atseginetarako neurri gabeko gogo eta gehiegikeria. Lizunkeritzarekin lotzen du.

Hona gakoa, baten libertinajea eta bestearen lizunkeritza. Nasailorea hezetasuna dagoen lur emankorretan hazten da, lizuna bezalaxe. Horra nasailorea izenaren jatorria. Ba ote? ●



"Soro-erregina" edo "nasailorea".

## BARDEA

EKOIZLEEN ARTEKO ALIANTZEI ESKER  
DIBERTSIFIKATZEN JOAN DEN ETXALDEA

**GARAZI ZABALETA**  
@TIRIKITRANN

**K**asedako (Nafarroa) San Isidro del Pinar kontzejuan bizi dira Kiko eta Pablo Fernandez Salinas anaiak, eta bertan dago Bardea Etxaldea. “Truñetik etorri ginen hona duela 28 bat urte, hiritik eta fabrikako lanetik ihesi, landa eremuaren bila”, azaldu du Kikok. Olioa eta mahatsa eredu konbentzionalean ekoizten hasi ziren, baina hurbileko upategi ekologiko batek bultzatuta –edo kutsatuta–, ekoizpen ekologikoan pixkanaka murgiltzen hasi ziren bi anaiak: “Duela hemezortzi urte mahastiak pasatu genituen ekologikora, ondoren olibondoak, gero almendrak... niretzat ez zuen zentzurik goizean sail batean herbizida botatzen aritzeak, gero arratsaldean sail ekologikoan garbi aritzeko”, kontatu du Kikok.

### DIBERTSIFIKAZIOA ETA ELKARLANA

Hainbat produktu ekoizten dituzte egun Fernandez anaiek Bardeetatik gora dituzten lursailetan: lekaleak –txitxirioak eta dilistak, batik bat–, mahatsa, olibak, almendrak eta zereala. “Hemezortzi bat hektarea olibondo ditugu, eta urtean 20.000 olio litro inguru ekoizten ditugu”, azaldu du. Cascantera daramate oliba, nahi baino urrunago egonda ere,



hura baita ekologikoan lan egiten duen errota hurbilena. Mahatsa ardo egiteko erabiltzen dute, baina duela gutxi arte gehien-gehiena inguruko upategiei saltzen zieten. Upategi txikien elkarlanetik sortutako Biba Ardoak egitasmoari esker, ordea, saltzeko ardo ekoizten ere hasi ziren duela lau bat urte. “Lehenago ez zegoen ekoizleekin justua zen horrelako beste egiturarik Nafarroan”.

Lekaleak ekoizten hasteko erabakian ere, proiektu kooperatibo batek izan zuen zerikusirik: “Lehen, bazkarako zereala ekoizten genuen, baina pertsonen kontsumitzeko lekaleak ere egiten hastea pentsatzen ari ginen momentuan, Hazialdeko kooperatiba sortu zen, eta horrek behar genuen bultzada eman zigun”. Lekaleak ekoizten dituzten Nafarroako ekoizle eko-

logikoeak abiatu zuten egitasmoa, eta Kikok nabarmendu duenez, labore horiek garbitzeko eta ontziratze beharrezko tresneria eskuratzeko bidea elkarlanean egin izana oinarritzkoa izan da.

### AZKEN BERRIKUNTZA, ALMENDRAK

Nafarroaren zati handiaren bezala, Kaseda inguruan ere zerealaren monokultiborantza nagusi da, eta gutxiengoa dira ekologikorako hautua egiten dutenak. “Europa osoko joera orokorra da: ekoizpenen tamaina gero eta handiagoa izan, makineria pisutsuarekin lan egin... gutxi batzuk gara salbuespena”.

Ekoizpen txikiak bezala, zuhaitziak ere pixkanaka desagertzen ari direla gehitu du nekazariak. Bardean, baina, badituzte almendrak hamabost hektarea inguruko lursailean, eta hurbileko ekoizle gehiagorenak ere biltzen dituzte: “Hori da merkaturatzen hasi garen azken produktua, almendra ekologikoa”. Fruituen eskola kentzeko tokirik ez dago hurbilean, eta kanpora bidali beharrak amorratu egiten ditu. “Ez du zentzurik almendrak biltzeak, horiek zuritzeko Murtziara bidali beharra baditugu. Pentsatu beharko dugu honetan ere ekoizle onen arteko sistemaren bat...” ●

**Elikagai ekologikoak osasunerako onuragarriak**



Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoen Kontseilua  
Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euzkadi





'GAKOAK' 2023



## Haria galdu gabe deskonektatu

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

**P**atxadaz irakurtzeko abuztuan etxean jasoko duzun liburuxkaren prozesua ez da hain patxadatsua izaten. *C'est la vie*, bizitzaren paradoxak. Zein zaila den, ezinezkoa ez esatearren, erritmoa jaitea, erlojuari begira aritu behar dugunean. Martxa bat –edo bi– gutxitu, ibilgailuan lehena sartu, abiadura makaldu, ttor-ttor, eta agorrileko egun beroak gozoago pasatzeko gako batzuk eskaintzea tokatzen zait gaur, irakurle. Bere lana du datorren astean jasoko duzun orri-sortak, baina merezi du hila-beteko deskantsua hartuko duen erredakzioak irakurlea ezer gabe ez uzteko aurretik egindakoak; mamitsua atera da aurtengo *Gakoak* ere.

Alkoholaren kulturari eman zaio aurtengo azala. Paula Estévez marrazkilaria ilustratua. Festa garaiotan egoki datorrenik ezin uka. Hortik aurrera erreskadan

datoz gai denak, gai desberdinak, luzeago edo motzago landuta –ez baitu gehiago edo gutxiago lantzea esan nahi–, erreportaje, iritzi-artikulu edo elkarrizketa modura, nazioartekoak bezala etxeok, aktualitateari lotuagoak edo atemporalagoak. Euskara, ingurumena, feminismoa, nazioarte, bidaiak... Aurtengo berrikuntzetan koka genitzake, adibidez, lehen orrialdeak betetzen dituen *Librearen ederra* edo bukaerarako erreserbatu den *Sasion gainetik* atalak. Argazkien bilatzeko betiko iturrietatik tira beharrean, aurten 2022an Wikipediara lizentzia libreekin igotako irudirik onenak bezala hautatutako batzuk ekarri nahi izan dira. Ibilbideen gomendioak, berriz, ez dira nobedadea, baina bai hauen aukeraketa; aurten azpiegitura handiek edo problematika batzuk mehatxatutako inguruak ekarri baitira orriotara.

UDAKO ETENALDIA

## Astekaria irailetik aurrera bueltan

Urtero moduan, aurten ere udako sasoiaren etenalditxo egingo dugu ARGIA astekariari dagokionez. Hala, datozen lau asteetan ez dugu argitaratuko; irailarekin batera itzuliko gara indarrak hartuta. Baina astekariaren ordez 108 orrialdeko *Gakoak* aldizkari berezia jasoko duzue etxean, abuztuko egun sargorietan patxadaz irakurtzeko.

Gainera, aktualitatearen inguruan informatuta egoteko **Argia.eus** webguneak martxan jarraituko du. Egutero, gertatzen ari denari buruzko albisteak egingo ditugu eta eduki sakonagoak ere eskainiko ditugu. Horiek guztiak gure Telegram kanalean eta bestelako sareetan zabalduko ditugu beti bezala.

### Azoka abuztuan

ARGIAren Azokak ere martxan jarraituko du abuztuan eta gutxieneko zerbitzuak bermatuko dira. Telefono deiak ezin izango ditugu hartu, baina eskaerak internet bidez egin daitezke betiko moduan, **azoka.argia.eus** webgunean.

### 'GAKOAK' EGITEKO PROZESUA

Argia Sariak –urtarrila bukaera alderapa eta hasten dira buruak martxan erredakzioan. Epeak finkatu behar dira, entregak, diseinua, maketazioa noren esku geratuko den, tirada zenbatekoa izango den, publizitatea, diru-kontuak. Hasten da dantza. Kontu teknikoagoak dira horiek, Antza inprimategiko lagunekin bideratzen direnak.

Martxoa alderako, bestalde, erredakzioan egiten da lehen ideia zaparrada, bakoitzak bere arlotik, hamar hamabost gai proposatuta. Gero galbaheak pasa eta hamabi gai aukeratzen dira, eta bakoitzari bere formatua eta itxura ematen zaio; egi-leak lanari ekin eta ekainaren amaiera alderako dena zuzenduta eta itxita geratzen da.

Goza ezazu udaz, irakurle. ARGIAk haria galdu gabe deskonektatzen laguntzen badizu, gu pozik. ●

# Kobre Aroko buruzagia eta egungo aurreiritziak



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

beriar penintsularen hegoaldea, duela 4.900 urte. Komunitateko kide nabarmen bat ehortzi zuten luxuzko objektuez inguratuta eta berarentzako bakarrik eraikitako hilobi batean. Hildakoaren arrastoak 2008an aurkitu zituzten Sevillako Valencina aztarnategian eta, lehen azterketak egin ondoren, 17 eta 25 urte bitarteko gizonezko baten arrastoak zirela ondorioztatu zuten.

Berehala konturatu ziren indibiduo hura komunitateko kide nabarmena zela, ganbera batean bakarrik ehortzita zegoelako, eta Kobre Aroan multzoan ehortzi ohi zituztelako hildakoak. Gainera, 200 urtez ingurua ehorzketa eta gurtza gunea izan zela ikusi zuten, baina hilobiaren inguruko 35 metrotan beste inor ez zutela ehortzi. Horregatik uste dute gutxienez 8-10 belaunalditan komunitateak pertsona horren oroimenari eutsi ziola.

Zalantzarik ez zegoen estatus handiko pertsona zela. Gainera, Kobre Aroko haurren hilobi gutxi aurkitu dituzte eta horietan ez dute objektu berezirik aurkitu. Horrek esan nahi du garai hartan estatusa ez zetorrela odoletik, eta Valencinan ehortzitako pertsonak bere kabuz lortu zuela nabarmentzea. Hilobian aurkitutako objektu baliotsu eta bitxiak ere bere garrantzia adierazten dute: afrikar eta asiarrak elefanteen



Valencinako hilobian aurkitutako bolizko hortz apainduak bertan ehortzitako pertsonaren garrantzia adierazten du.

hortzak, ziurrenik Siziliatik zetorren anbarra, kalitate handiko suharria, ostruka arrautza-oskolak, harri-kristalezko orria eta bolizko kirtena duen daga bat...

Berriki Sevillako Unibertsitateko ikerlariak, Vienako (Austria) hainbat adituren laguntzarekin, Kobre Aroko buruzagiaren arrastoen azterketa zorrotzagoa egin dute, teknika berriak baliatuz. Zehazki, hildakoaren hortzetako esmalteko proteina sexualki dimorfikoak aztertu dituzte, eta emaitza harrigarria *Scientific Reports* aldizkarian argitaratu dute: Valenci-

nan ehortzitako pertsona berezi hura emakumea zen. Eta Bolizko Dama izena jarri diote.

Marta Cintas Peña ikerlanaren egileetako baten hitzetan, teknika zientifiko berriak "jauzi handia ekarriko du Historiaurreko gizarteez dugun ezagutzan, bereziki, emakumei eta haurrei dagokienez, tradizionalki eta modu bidegabean bigarren mailan kokatu izan ditugulako". Aurkikuntzak emakumeek iraganean izandako rola birpentsatzeko beharra eta ikerlariak gaur egun izan ohi dituzten aurreiritziak utzi dituzte. ●

ATLAS IKERKETA TALDEA / SEVILLAKO UNIBERTSITATEA



JOHN S. LANDER

## Bandalismoa eta turismoa

Duela aste batzuk albiste izan zen turista batek bi izen eta data bat idatzi zituela Erromako Koliseoaren horma batean. Handik gutxira, beste turista bat filmatu zuten Koliseoan bertan N letra markatzen. Joan den astean, Japonian, Nara hirian, kanadiar turista bat harrapatu zuten VIII. mendeko tenplu budista batean (argazkian) bere izena idazten. Jarrera horiek salagarriak izan

arren, Unescoren arabera, bandalismoak oso eragin txikia du ondarearen suntsipenean, beste faktore batzuekin alderatuta. Turismoa bera da faktore kaltegarriena; 1985ean masa turismoak babestutako guneko historiaren %8 kaltetzen zuela kalkulatu zuten, eta, duela 10 urte, 2013an, gehiegizko usiatze turistikoak guneen %80ri eragiten zien. ●



## LIBURUA

# Ankerra izan behar



## ANKER

GIDOIA:

**GREGORIO MURO HARRIET**

ILUSTRAZIOAK:

**ALEX MACHO**

KOLOREA:

**GARLUK AGUIRRE**

HARRIET, 2023

**XABIER ETXANIZ ERLE**

**2**019ko urtarrilean dago kokatuta *Anker* komikia. Errusiako lurraldeetan, Txina eta Ipar Koreako mugetatik gertu. Bertan, Siberiako basoak soiltsen ari diren mafiak eta hauek ikertzerara doazen ekologistak ageriko zaizkigu, baita basogintzan aritu arren bere herria eta naturaren alde ari den udegetar jendea ere. Izan ere, istorio honetan gai asko ageri dira: ingurumenaren auzia, mafien negozioak, gizakion gorrotoa, herri txikien nortasuna, eta horiek guztien inguruan edo horiek guztiak lotuta misteriozko istorioa, thriller bat.

Komiki zoragarri honen lehen orrietatik sentitzen du irakurleak irakurtzen aurrera jarraitzeko gogo. Lehen orri horietan basoetan egiten den txikizioa ikusi dugu, baita ustelkeria eta egurra-

ren trafikoa ere, negozio horietan ari direnak, eta horien kontrako ekologistak. Irakurleak intrigazko elementuak ditu eskura, sumatzen du istorioak aurrera egin ahala korapilatzen joango dela; eta hala da, are gehiago egurra trafikatzan ari den ehiztari batek tigre bat zauritzen duenean. Tigreak, orduan, mendekua bilatuko du, pertsonak hiltzen hasi eta Amba bilakatuko da, basoetako espiritu beltza, udegetarren arabera tigre haserretuaren eta mendekatzailearen itxura hartzen duena, liburuko ohar argigarrietako batean azaltzen zaigun bezala.

Istorioa irakurri eta ikusi ahala thrillerrean gero eta sartuago sentituko gara, akzio pelikula batean bageunde bezala; eta horretan zerikusia du gi-

doiak baina baita marrazkiak eta koloreak ere. Ikuspuntu ezberdinetatik, toki eta pertsonaien neurriarekin jolastuta, kolore zuri nagusiaren aurrean bestelakoak tartekatuta, ikusleak aurrera egiten du istorioan.

Benetako gertakarietatik abiatuta egin zuen gidoia Harrietek eta, egia esan, ederki lortu du hasieratik amaieraraino irakurlea harrapatzea, baita hainbat kontu azaleratu eta haien gaineko salaketa egitea ere; basoen soiltsze handiena ez da Amazonian gertatzen, gure merkatu goseti eta asezin honek ez du etenik... guk ez badugu eteten. Dirua eta botere nahia nagusi omen diren mundu honetan bada itxaropen txiki bat, tigre itxura badu ere... Ankerra bada ere. ●





MUSIKA

## Dei galduak ala bala galduak?



112

AZKEN DEIA

AUTOEKOIZPENA, 2023

IKER BARANDIARAN

**A**zaroan, Ez Donk Amaitu-k Arrasaten antolatutako jaietan, deskubritu nuen herri bereko 112 talde gaztea. Sorpresa atsegina hartu nuen. Gazteak izanda ere beste hainbat proiektutan (WC, Txuleria Joder, Volketete...) ibilitakoak dira horietako batzuk, eta ondo eusten diote gaztetasunari, lotsagabetasunari eta kaleko izaerari. Are gehiago, salaketa, probokazioa eta umorea uztartzen dituzte, euren eskaintzari bestelako ukitu freskoagoa emanda. Hitzei dagokionez, esaterako, ez daukate ilerik ahosabaian, eta *destroy* edo *antitodo* izan gabe lortzen dute erreakzioa eta hausnarketa. Taldeak daukan beste berezitasun bat da kideetako batek baino gehiagok abesten duela, eta koroak

zein ahots desberdinak lantzen dituztela. Izan ere, hori ez da ohikoa gure artean, eta are gutxiago punk-rockaren eremuan.

Dozena erdi kontzertu emanak izango dituzte eta lehen lana kaleratu berri dute haien kabuz, Bilboko Pookah estudioan (Mikel Biffs-ekin, hortaz) egun bakarrean (!) eta klaketa gabe grabatu dutena. Hain izen deigarri eta polizial-asistentziala badute ere, aitortu dute ez dituela inork deitzen; aldiz, haiek ibiltzen dira jotzeko asmoz gaztetxe eta tabernetara deika. Baina ez dira galduko, ikusiko duzue!

Santa Ageda-ko kantuaeren pasarte bat jarri dute intro moduan ("Ta kanta nahi degu gogoz") eta *Kill your idols*

punk-rock azkar eta desmitifikatzaileekin egiten dute lehen eraso: "Ez dugu inor jarraitu nahi, orain 112ren denbora da..." diote. Jarraian, *Plástico* da punk-rock zirikatzailea, Clash, Burning eta pub-rocka batzen dituena. *Gu geu geure menpe* da Pichones taldea berpiztuko lukeen pieza, rock-and-roll indartsu eta gitarreroa. *Put a Nacho* Cica-k abestu ahal lukeen rock-and-roll pub-rockeroa. *Azken deia* La Polla eta Oi!-aren ukituak dituen pieza itsaskorra. *Sssh* oinarri sendoa daukan punk-rock jostaria. *Txorakeriak* La Trapera, Vomito eta Clash-en entsalada pozoitsua. Eta, azkenik, *Komunean* The Hot Dogs!-en tamainako tempo erdiko rock-a, baldosetako rifeekin aberastuta. ●



# Eta gu espiralaren erdian biraka ari gara

■ IÑIGO BASAGUREN-DUARTE

**C**hihuaha txakur bat telebista baten aurrean jarrita dago. Urrutiko mandoa zapaldu eta Burt Reynolds aktorearen filme bat agertu da pantailan. Ausazko hautuak izena eman zion orain 30 urte bete berri dituen Reynolds musika talde argentinarrari. Ausazko hautuak edo Eris kaosaren jainkosaren ezkutuko eskuak. Kaosa izan da taldearen bidea markatu duena. Unibertsoa aurreikus zitekeela pentsatu ohi genuen, baina ideia hori XX. mendearrekin batera hil zela aipatu zuen John Higgs idazleak. Unibertsoaren konplexutasuna ezin da lege sinpleekin azaldu, lege horiek ez baitira lege, batzuetan, askotan, betetzen ez direlako. Hori argi zuen Reynolds taldearen sortzaile den Miguel Tomasinek, eta horren arabera bizi du bere sorkuntza artistikoa. Hori dela eta talde argentinarraren musika sailkaezina da. Tomasinen esanetan: "Mundu honetako eta mundu guztietako talderik

onena gara. Oso banda kaskarra gara".

Taldeak 30 urte bete berri ditu 2023an eta zaila da atzera begirada oso bat ematea, hain erraldoia baita sortu duten unibertsoa. Kaosak gidatutako unibertso soniko miresgarria. Hurbilketa ariketa gisa, erakusketa ibiltaria antolatu dute, maiatzetik Euskal Herrian ikusgai dagoena. Bilboko Espora Espazioan, non bestela. Erakusketak argazkiak, posterrak eta prentsatik ateratako materiala bildu eta hilabete batzuetan espazioko hormak apaindu ditu. Horrekin batera ekitaldi ugari antolatu dira, hala nola *Buscando a Reynolds* (2004), *Sinti Botuva Tapes* (2018) eta *Acid Mothers Reynolds: Live and Beyond* (2020) dokumentalen emankizuna. Erakusketari bukaera emateko ekitaldi berezia antolatu zen: Esporako izaeraren ardatz den *Deep Listening* entzunaldi kolektibo bat. Hau berezia izan zen, hala behar zuen, eta sei disko (bai, sei) entzun geni-

## DEEP REYNOLS

Bilboko Espora Espazioan, ekainaren 29an

tuen aldi berean. Sei disko estrategikoki jarritako sei iturri desberdinetatik.

Kaosaren espiralaren erdian lagun talde bat batu ginen, biribilean jarritako aulkietan. Horrek izan behar zuen gure espazientzia, Reynolds unibertso kaotikoan barrena eramango gintuena. Kiko Monzón izan zen bidaiaren gidaritzapean ibili zena eta berak mimo handiz egindako lanari esker kaosak forma hartu zuen. Soinu eta zarata bola jasangaitz bat espero bagenuen ere, sei diskoen uztarketa neurtuak melodia ederrak sortu zituen eta, une askotan, abesti edo iturri bakar batetik entzuten ari ginela ematen zuen, sei bozgorailuak pieza bakarra emititzen ariko balira bezala. Gerrilla soniko batek milimetrikoki antolatutako sabotaiak izango balitz bezala.

Eta hor geunden gu, espiralaren erdian gozatzen, sentitzen genuenari buruz idazten, begiak itxita bidaiatzen, kaos eder eta liluragarriari men egiten. ●



# Hitz gezidunak

BURUSOILAK HIZKETA, BERRIKETA	GARI ALE LAWREN- TZIOA	ISRAELGO LEHEN ERREGEA	DANI BLANCO		FUSKAL HERRIKO MENDIA TOGORO BIZTANLE	JOATEN, JOATEKO BIDEAN SOINUA JASO	ISEKA EGITEKO ERA ANIZKOITZA
U HARTE GALDE PARTIKULA	GAREN HAUEK KOTXE	ZAKURRA HOBERA	IRAKINALDI LEKU DESEGOKI	BIZKOR SENIPARTE	ERRE- PIKATUZ, GOROTZA BIZKAIKO UDALERRIA	ARABIA DINASTIA	
AZA BARIETATEA NAFARROAKO HERRIA	OGIA EGOSTEKO TRESNA IRRIBERA, JOSTARIA	ABERRIA ADORE, KEMEN	LANPETU EMEEN UGATZA	DAUKANA OINAREN ATZEALDE	SALDU ADITZAREN INFINTIBOIA UNNILHEXIOA	ANPEREA TELEBISTA	
LUTEZIOA HARREK JO	LEGOA PERTSO- NAIAREN IZENA	... EGIN, ISEKA EGIN, TRUFATU KRIPTONA	OINAZETU, NEKEA EMAN KILOA	HILOBI			
DORTASUNEZ ENPARAU							

## Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1 ETIK 9 RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	1	5	6			4	7	
	9	8	7	2	3			
6					4			
	8		2				5	4
1		9	5		7	8	3	2
		2	9			7	4	6
	5					3		
9	4	1	3		6		8	5

## 5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Moztu.
2. Ekain.
3. Mineral koloreduna.
4. Zornotzako musikariak.
5. Bizitasunik gabe.


## EBAZPENAK

6	4	1	3	7	6	2	8	5
7	5	6	4	8	2	3	1	9
8	3	2	6	1	5	7	4	9
5	2	4	8	3	1	6	9	7
1	6	9	5	4	7	8	3	2
3	8	7	2	6	9	1	5	4
4	9	8	7	2	3	5	6	1
6	7	3	1	5	4	9	2	8
2	1	5	6	9	8	4	7	3

G	V	A	I	N	E	R	A	K	O	H	O	B	I
I	D	O	R	R	K	I	P	E	N	A	T	U	
H	A	R	I	O	T	R	R	U	T	A	V	A	
L	U	L	V	I	K	O	A	S	V	A	L		
S	A	G	U	A	R	T	E	D	E	N	A	V	
L	A	B	E	L	A	N	T	S	U				
U	K	A	R	N	A	Z	A	V	O	A	K	A	
V	A	Z	A	V	A	R	E	V	A	B	I	Z	
V	G	U	O	I	R	A	O						
V	I	R	L	A	V	A	R	A	N	O			
S	L	T	O	A	G	O	V	A	R				
S	G												



# Eva Gomez eta Santos Ayesa

NICOLETTE ERAIKITZEN  
23 URTEZ



## "ATEZAINAK BIZITZA ALDATU ZIGUN"

"Atezaina jarri behar izan genuen. Udalak isunak eta isunak jartzen zizkigun baimendutako edukierarengatik. Eguneko tabernetan hemengo kontrolak jarriko balituzte ia taberna guztiek izango lituzkete isunak. Edozein asteburu eguerdian istripu larriak gerta daitezke, daukazazu zakurrak, gurrupil-aulki bat, haurrak, fikus bat, baina isuna guri jartzen ziguten. Erabaki genuen ez genituela, isunen bidez, udaltzainen soldatak ordaindu nahi. Jarri genuen atezaina eta, horri esker, askoz gusturago dantzatzan zen hemen, gusturago zegoen jendea."

## "Iruñeko Alde Zaharrean ez zegoen musika txukuna zuen tabernarik"

23 urte bete berri ditu Iruñeko Nicolette tabernak. Iruñerrian musika elektronikoan berezitutako taberna ia bakarra zen ireki zutenean, beste inolako tabernak baino estetika zainduagoa izan du, hileroko programa jasotzen zuten afixak diseinatzaile nabarmenek egin dituzte. Baina elkarrizketa egin eta biharamunean utziko diote Eva Gomez Ullate del Pozok (Iruñea, 1964) eta Santos Ayesa Marinek (Murillo del Fruto, 1973) erritmoaren klubeko jabe izateari.

 HEDOI ETXARTE  ZOE MARTIKORENA

### Nola hasi zen hau guztia?

1990eko hamarkadaren bukaeran musika elektronikoaren inguruko talde bat zegoen Iruñean, *Los caracoles* deitzen zena. Jende mordo bat. Festa ibiltariak prestatzen genituen. Talde hori, lehenago, *El club de alterne* deitzen zen. Hainbat tabernatan antolatzen genituen jaiak. 1999ko gabon zaharrean hasi zen geure taberna hartzearen kontua. Hasieran hiru bazkide izan ginen. Hirugarrenak gay liburu-denda bat zuen San Martin ardandegiaren, gaur egun La inopia taberna denaren, parean.

Taberna izan arte, Sanferminetan San Martin ardandegian antolatzen genuen jaiak. Haiek eguneko festa bukatzean gu sartzen ginen gurea antolatzea gauzez eta toki hartako pintxo ohikoa barraskiloak zirenez hartu genuen *Los caracoles* izena.

### Eta Nicolette nolatan hartu zenuten?

Nizan lan egiten nuen garaian bazen

legenda bat esaten zuena hiru astelehen jarraian San Nikolasi kandela bat jartzen bazenion lanean ongi joango zitzaizula.

Eta orduan Santosek-eta ikusi ninduten nola joan nintzen orain itxita dagoen txinatarren denda batera, Zapaterian, kandela bat erostera, eta nola sartu nintzen San Nikolas elizan. Eta orduan pentsatu genuen areto honi jarriko geniola San Nikolas, baina trabestitua eta frantsesez, hortik Nicolette. Eta hasieratik jarri genuen *Nicolette est venue, Nicolette etorri da, Nicolette ha venido*. Frantsesez, euskaraz, gazteleraz.

### Nola lortu duzue hain musika fina astero?

Jende asko ginen, baina ez genuen toki finkorik. Tabernak zeuden, beti musika bera jartzen zuten eta gero dantzalekuak zeuden. Gu Alde Zaharrekoak ginen, beste auzoetan bazen jende modernoa, baina Alde Zaharrean ez zegoen musika txukuneko



"Jende askok eskatu izan digu sare sozialetan genituen argazkiak kentzeko, oso kalteturik agertzen zirelako. Jende ezaguna, gogoan ditut bi-hiru neska".

tabernarik. Orain, 2000 urtea begiratzten duzu, eta eman dezake ordurako gurgipilik gabeko kotxeak zebiltzala kaleetan, baina ez, historiaurrea zen. Ez zegoen alternatibarik eta oinarri sozial handi bat genuen guk.

Urteotan Txabik eraman du musika programazioa, inolako xantairik eta hipotekarik gabe aritu da, nahi duena egin du, zorrotz eraman du programazio osoa, berak ezagutzen du musikaren mundu horretan jendea.

### 23 urteren ostean, Iruñean musika fina duten taberna gutxi, ez?

Guk hori ez dakigu. Mendian zaudenean ez duzu mendia ikusten. Jendea datorkizu esanaz: ze musika puska daukazun, ze taberna puska. Baina zu zaude egunerokoan, puskatu dena konpontzen, edariak mugitzen, sortu den arazoari irtenbidea bilatzen, hurrengo hilabeteko afixarekin... Eta gazteagoa zarenean, ba lantokitik atera eta zorutzen zara. Gelditu gabe egon gara 23 urtez.

Ongi atera zaigu, baina oso gaizki atera zitekeen. Garai txarrak ere pasa ditugu, gogoan dut Alde Zaharrean zurgatzailea sartu zutenean, 2008ko krisia. Baina beti jarraitu dugu, adibidez hilero diseinatzaile fin batek egiten zituen afiak. Hilero.

### Musikan erreferentea izan da Nicolette, baina baita giroko taberna gisa ere. Nola sentitu zarete?

Begira: hau giroko tabernatzat hartu izan da hiru sortzaileetatik bi maritxuak ginelako. Eta ados, jendeak jostailuzko zakilak jartzen zituen buruan eta film pornoak proiektatzen ziren hormetan. Eta hona maritxu asko etorri da, baina berez ez da izan giroko taberna bat. Bai eta ez.

Giroko taberna bat baldin bada, maritxuen taberna bat da Nicolette, baina ez da izan giroko taberna bat. Iruñean baziren giroko tabernak (A la carga, El 40), maritxu-maritxuenak. Baina horiek gizonentzako soilik diren tokiak dira, oso kode zehatzekin, eta oso lurralde komantxea da. Txortan egin nahi badu esango dizut, baina txortan norekin egingo duzun aurkitzeko toki bat ez zait interesatzen.

Gainera, taberna bat bakarrik gizonekin ala emakumeekin izugarri nazkagarria da. Ala taberna bat bakarrik heterosexualekin nazkagarria da. Arazoak daude. Taberna batera ez badoaz emakumeak tabernak ez du funtzionatuko. Eta neskek gustura egon behar dute gainera. Ez daitezela atzean egon lau gizonkote. Eta hona etorri dira genero guztietako eta zaletasun guztie-

tako pertsonak, eta ez bazaizu hemen dagoena gustatzen, zoaz parkera. Alegia, zuri gustatzen bazaizu, ongi etorri, baina gustatzen ez bazaizu, zoaz, ongi portatu behar zarela. Niri giroko taberna bat oso gauza kontserbadorea iruditzen zait. Ez dut nahi.

Are gehiago, maritxu asko etorri izan da eta alde egin du. Baina guri antigoalekoa iruditzen zaigu kontzeptu hori, giroko tabernarena, aspergarria.

### Arazoak izan dituzue?

Kaka zaharra hasi bezain laster moztu izan dugu beti. Eta gero oso lagungarria da proiektioetako batzuetan zakil batzuk tente badaude. Ergelen bat sartzen bada segidan ematen du buelta eta badoa. Horretarako dira zakil horiek. Jendilajearen kontra funtzionatzen du. Jendilaje horrek Iruñeko taberna guztiak dauzka bere giroarako. Gainera, seigarren zentzumen bat garatzen duzu eta badakizu sartzen dena ze jarrerarekin sartzen den.

### Zer izan da Nicolette zuentzat?

Gure etxea izan da, guztiaren gainera. Oso zorrotzak izan gara, sartuko den jendearekin eta estetikarekin. Gure etxean gure arauak, horri esker egon gara hain gustura. ●

# Bero-boladak izendatzeko politikaz

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**L**éon Bloy ez zen meteorologoen oso zalea. Bueno, ez meteorologoena, ezta ia beste ezerena ere, haren liburuetatik nekez ateratzen baita inor erretxin arrastoren bat gorputzean pegaturik ez daukala. Baina konkretuki meteorologoez, badauzka lerro batzuk *Exégèse des lieux communs* liburuan, tarteka gogora etortzen zaizkidanak, eguraldi-iragarleen gremiokoen erretolika konparatzen duelako janari-denda batzuetako saltzaileen kalakarekin: “Ezaguna da merkatarik estimagarri hauek nola komunikatzen dituzten, egunero eta bereizketarik egin gabe, atmosferaren egoera seguruari edo bakarrik probableari buruzko beren behaketa guztiak. Ezerk ez die ihes egiten, hodei bakar batek ere ez, eguzki izpi batek ere ez, ezta brisa batek, ezta zefiro batek ere, eta mundu guztiak ateratzen dio etekina berehala. (...) Euria eta eguraldi ona baliabide unibertsalak dira, agorrezinak. «Gure elkarrizketa zeruetan dago», esan zuen San Paulok. Bitxiki profetikoa da esaldia, egunero hogeita hamar milioi aldiz baieztatu dezakegu, duela hamar edo bederatziz mendetik hona, eta ez bakarrik janari-dendan, baita edozein burgesen etxean ere”.

Bai, Bloy, ni ere aspertzen ninduten eguraldiari buruzko elkarrizketek bizilagunen batekin igogailuan tokatuz gero. Baina klaro, Bloy, *ninduten*. Gero etorri dira borroka greko-erromatarreko modalitatean marka olinpiko guztiak puskatzen ari diren uda honetako bero-sapak. Eta bizilagunekin edo dendarekin eguraldiaz hitz egiteak gauza hutsala izaten jarraitzen du, noski –“hondartzarako primeran gaur, e?”–, baina diferentzia handi bat dago: bizepsak eta pektoralak oso landuta bronka bila etorri zaizkigun tenperatura hauen aurrean,



kontzientzia ere urtu egiten baita azkenerako; eta umeari lurrera erori zaion izozki bola bezalako zopa higuigarria bihurtzen da burmuina; eta kariñoa zention hirugarreneko agureaz ere pentsatzen hasten zara jubilatuta honek eta bere belaunaldi guztiak txukuna utzi digutela panorama; eta beraiek ez dutela askoz gehiago irauango, ez, baina guk patatekin jan ez, patatekin batera egosi beharko dugula lapiko honetan.

(Esan dizuet, Bloy irakurri eta erretxindu, dena bat).

Suertez, meteorologiarekin eta adineko jendearekin bakeak egiten lagundu didan albiste bat agertu zait pantailan pasa den astean. Erretiroa hartu duen telebistako eguraldi-gizon bat –Guy Walton du grazia–, ariketa simple bezain eraginkorra egiten ari da bere blogean: uda honetako tenperatura estremisten berri ematen du eta, hau da nobedadea, AEBetan identifikatzen duen bero-bola-

da bakoitzari petrolio edo gas enpresa erraldoi baten izena jartzen dio. Azkene-koari Chevron, aurretik Amoco eta BP. Eta beste 20 enpresaren zerrenda prest daukala dio, hurrengo tenperatura-errekorrak iristen direnean Exxon, Shell edo Pemex –bai, Feijoorekin negozioak zituena– zuzenean egoeraren erantzule egiteko. Zerrenda hori bukatzen zaionerako –eta ez da, segur aski, denbora askorik pasako–, ikatzarekin etekinak ateratzen dituzten multinazionalen izenak bilatzen ari da gainera.

Europar, oraingoz, mitologia greziarreko nomenklaturarekin ari gara bero jasangaitzak abanikatzen, Zerbero eta Karonte izeneko fenomenoak agertu dira notizietan, baina agian Waltonen eredura pasatzeko momentua iritsi zaie eguraldi-iragarpenera egiten dutenei: animatuko da inor abuztuan Kame Hame batek bezala joko gaituen bero-boladaren bati Repsol deitzera? ●





# NO!

ELI PAGOLA, MAITANE GARTZIANDIA ETA MIREN ARTETXE

AUTO BIDAIK BERTSO SAIOETARA BIDEAN.  
ZORIZKO ALIANTZAK ETA ADISKIDETASUNAK.  
OHOLTZAPEKOAK. OHOLTZA GAINEKOAK.  
BOTERE HARTZEAK, GARAGARDOAK ETA KONPRESAK.  
EMAKUMEOK JENDAURRERA JAUZI EGITEAN  
BIZI DITUGUN POZAK, ALEGIA.

**Komiki berria**

140 orrialde koloretan

Prezioa **24 €**

Bidalketa gastuak **5€**.

Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

**azoka.argia.eus**

(+34) **943 37 15 45**

# OTU

Sortu zuen istorioak



Zenbateraino egin dezake  
hegan zure irudimenak?

Zenbateraino zara gauza  
ipuin-kontalari trebeenen  
mailan aritzeko?

Bota kartak eta **sortu istorioak!**

70 karta, irudimena, hizkuntza,  
ahozkotasuna... ludikoki lantzeko, eta  
batez ere, disfrutatzeko eta gozatzeko.

Prezioa **12 €**

[azoka.argia.eus](http://azoka.argia.eus) (+34) 943 37 15 45

Bidalketa gastuak 5€. Bidalketa doan 40€-tik gorako erosketetan.